



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria

2013ko urria - 2014ko Abendua

Etika Publikorako Batzordea
Comisión de Ética Pública



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria

2013ko urria - 2014ko Abendua

Etika Publikorako Batzordea
Comisión de Ética Pública

© Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa

Argitaratzailea: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea

ISBN: 978-84-7777-447-1

Lege Gorgailua: SS-253-2015

Diseinua eta maketazioa: La Debacle S.L. www.ladebacle.com

Imprimatzailea: Itxaropena, S.A., Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

Memoria honen xedea Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzardeak 2013ko urrian sortu zenetik, 2014ko abendura arte, egindako lanaren berri ematea da. Etika eta Jokabide Kodearen 16.3. atalean xedatutakoari jarraiki egin da eta horren arabera, aipatutako batzordeari dagokio Kodea zenbateraino betetzen den aztertzen duen urteko txostena egitea.

Etika eta Jokabide Kodea zenbateraino betetzen den aztertzen duen txostena

Aurkibidea

Sarrera	9
1. Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordea (EPB): aurrekariak, eraketa eta jarduteko araubidea	11
a. Eusko Jaurlaritzako EJKren sorrera, Administrazio Publikoaren alorrean onartutako kode etikoen testuinguruan	11
b. EJK, izaera juridikoa ez duten jokabideak agintzen dituen dokumentu gisa.....	15
c. EJKren hartzaileak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko kargu publiko eta behin-behinekoak	18
d. EJKren hartzaile diren kargu publikoen kodearekiko atxikipena	21
e. EPBaren osaketa eta eraketa	24
Osaketa (EJK, 16.2 atala).....	27
Funtzioak (EJK, 16.3 atala).....	28
Jarduera (16.4 atala).....	29
2 Memoriak jorratutako aldiari aztertutako gaiak.....	31
a. Kontsulta, salaketa eta akordioen estatistika	33
b. Planteatutako gaiak eta adostutako akordioen ildo orokorrak.....	37
I Jarduerak garatzeko bateragarritasunari/bateraezintasunari buruz (2) ...	37
II Jarduera akademikoak garatzeko bateragarritasunari/bateraezintasunari buruzko gaiak (4).....	38
III Adierazpena sinatzeari buruzko gaiak (1).....	41
IV Hautaketa/kontratazio prozesuari buruzko gaiak (3).....	41

V	Oparia itzultzeari buruzko gaiak (1)	43
VI	Jarduera jakina garatzeko interes-gatazkari buruzko gaiak (7).....	43
VII	Karrerako funtzionario-plazaren interes-gatazkari buruzko gaiak (3)	50
VIII	Ebaluaketa Batzordean parte hartzeagatik bertaratzeak kobratzeari buruzko gaiak (1).....	53
IX	Publizitateari eta babesletzari buruzko gaiak (2).....	54
3	Ondorioak eta gomendioak.....	59
a.	EJKren balizko urraketaren aurrean eman daitezkeen erantzunen aukerak zabaltzeko 6/2013 Akordioan egindako proposamenaren harira	62
b.	EJKren edukiak hartzaileen artean zabaltzearen komenigarritasunaren harira	63
c.	2014ko ekainaren 26 1/2014 Legearen (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituenaren) II. kapituluan jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak EJKn jasotzearen harira	64
d.	EJK 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legearen, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituenaren, arauketara egokitze beharrezkoak diren aldaketan eta txertaketan harira.....	64
e.	EJK-ko 16.4 atalaren aldaketaren harira	65
	Etika Publikoko Batzardeak aztertutako kasuak (2013an eta 2014an).....	66

Sarrera

Memoria honen xedea Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak (aurrerantzean EPB), 2013ko urriaren 16an sortu zenetik, 2014ko abenduaren 31 arte, egindako lanaren berri ematea da.

Memoriak Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu eta urte bereko ekainaren 3an EHAAn argitaratutako Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3. atalean xedatutakoari erantzuten dio eta horren arabera EPBri dagokio Etika eta Jokabide Kodea zenbateraino betetzen den aztertzen duen urteko txostena egitea. Txostenak EJK-ko 16.5. atalean xedatutakoaren arabera gomendioak jaso ahal izango ditu eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, hark horren berri izan dezan eta gainerako ondorioetarako.

1.

Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordea (EPB): aurrekariak, eraketa eta jarduteko araubidea

Hartzaileen aldetik EJK betetzen dela kontrolatuz, gainbegiratzuz eta ebaluatuz, EPBk egindako lana azaldu aurretik, badirudi egokia dela urteko lehen txosten honetan Kodea eta bertan aurrez ikusitako Batzordea kokatuta daudeneko erakundearen osotasun-sistemaren jatorri, prestaketa, antolaketa eta berezitasunen berri ematea, horren aplikazioa kontrolatzeko.

A. EUSKO JAURLARITZAKO EJKREN SORRERA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ALORREAN ONARTUTAKO KODE ETIKOEN TESTUINGURUAN

Egungo lehendakaria, garai hartan hautagaia zena, izendatzeko bide eman zuen inbestidura-elkarrizketan (2012ko abenduan), gobernu-programako ildo nagusiak aurkeztu zituen eta politikaren zentzu etikoa berreskuratze-ko beharra planteatu zuen, berreskuratze hori gauzatzen lagunduko zuten neurriak hartzeko konpromiso sendoa hartuz.

Konpromiso hura betetze aldera, 2013ko maiatzaren 28an, Eusko Jaurilaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko goi-kargudunentzako eta behin-behineko langileentzako etika eta jokabide kodea onartu zuen. Kode horren azken xedea euskal herritarrek erakunde publikoengan eta, bereziki, erkidegoko gobernuarengan, arduradun politikoengan eta zuzendaritza taldeengan duten konfiantza berreskuratzea da. Herritarren eskakizunei –ebolutiboak eta aldakorrak– erantzuteko prestatutako dokumentua denez, etengabe eguneratzeko prozesuari zabalik dago, gero eta gehiago diren eskakizun sozialetara eta azterketa publiko gero eta zorrotzagora egokitzeko xedearekin.

Kode hori onestea ez da ekintza isolatua izan, testuingururik eta aurrekaririk gabea. Aurretik, azken hamarkadan, espainiar estatuko erakunde publiko ugari onartu ditu etikaren eta gobernatze egokiaren kodeak, Eusko Jaurilaritzak onartutakoaren antzeko xedeekin. Mundu anglosaxoiko kultura politikoan oso zabaldua dagoen praktika dakarren eklosio horren lehen adierazpenak mende berriaren lehen hamarkadan egin dira nabarmen, batez ere, 2005eko martxoaren 3an *Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen Gobernu Onaren Kodea* onartu zenetik. Orduz geroztik, dokumentu mota horiek ugartu egin dira Espainiako alor publikoan, bai lege-testuen moduan, bai administrazio-ebazpen edo ad hoc hartutako hitzarmenen testuinguruan.

Fenomenoak, ordea, Espainiako muga geografikoak gainditu ditu argi eta garbi. Ezaugarri politiko «kontinentaleko» beste herrialde batzuetan ere barneratu da jatorri anglosaxoia duen eragin hori. Horretan lagungarri izan da zalantzarik gabe atzeraldi ekonomikoa eta horrek gizarte-kohesioan eta erakundeen egonkortasunean dituen ondorio negatiboak; izan ere, herritarren zentzu kritikoa nabarmen areagotu du horrek agintarien, arduradun politikoaren eta kudeatzaile publikoaren eginkizunari dagokionez. Europako Kontseiluko Tokiko eta Eskualdeetako Botereen Biltzarrak berriki ohartarazi duen moduan, krisi ekonomikoak –egun jasaten ari garenak ohiz kanpoko sakontasuna eta iraupena du– oinarri demokratikoak higitzen ditu eta ahalginak areagotzea eskatzen du, erakundeekiko herritarren konfiantzari eutsiko bazaio.

ELGAK hainbat herrialdetan onartutako zenbait jokabide-kode bildu ditu erakundeetako arduradunen jokabide etikoa bermatze aldera, sektore publikoko ustelkeriaren aurkako borrokan garatzen ari den estrateziaren esparruan jasotzen den kodetzeko ahalegin goresgarrian. (*Fighting corruption in the public service: <http://www.oecd.org/gov/ethics/ethicscodesandcodesofconductinoecd-countries.htm>*).

IX. legegintzaldian hasitako bidean sakonduz, Eusko Jaurlaritzak erakundeen kalitatearen eta ekintza publikoaren zentzu etikoaren aldeko nazioarteko mugimendu horrekin bat egin nahi izan du, aurrez aipatutako moduan, eta horretarako kode propioa onartu du, aparteko materialekin eta antolaketako edukiekin.

Duela gutxi –EJK onartu eta 16. atalean aurrez ikusitako EPB eratu ostean– Eusko Legebiltzarrak 1/2014 Legea, 2014ko ekainaren 24koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatatzak arautzen dituen onartu zuen.

Legeak bi betebeharrak asebetetzea du helburu, arrazoiaren adierazpenean azaldutakoaren arabera: batetik, zeregin publikoetan dihardutenen betebeharrak etikoa eta betebeharrak soziala, interes komuna kudeatzen dutenengan gizariek jarritako konfiantza legitimoa babestu nahi baitu eta, bestetik, haien jardueraren gardentasuna bizitza politikoan. Xede horretarako, arauak kargu publikoaren araubide juridikoko zenbait alderdi aldatzen ditu helburu hauekin: haren independentzia eta inpartzialtasuna indartzea, dedikazio eskusiboaren eskakizuna azpimarratzea, interes-gatazkak debekatzea eta bateraezintasunen araubidea gogortzea.

II. kapituluak, «Kargu publikoen jokabide-kodea arautzen duten printzipio orokorrak» delakoak, Legearen arabera Euskadiko gobernuko goi-kargudunen eta antzekoen jardueraren berri eman behar duten printzipioak eta balioak definitu eta honela sailkatzen ditu: norbanakoen jokaezko printzipioak (6. art.), erakundearen kalitatezko printzipioak (7. art.) eta herritarrekiko harremanen printzipioak (8. art.). Arauak, era berean, arreta berezia eskaintzen dio interes-gatazkaren definizioari (9. art.) eta abstentzio eta inhibizio betebeharraren erregulazioari (10. art.) eta honela xedatzen du 11. artikuluan:

« Lege honen 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan arautzen diren jarduketako eta jokabideko printzipioak Etika eta Gobernu Onaren Kodea prestatzen denean bilduko eta garatuko dira. Kode horri, ahalik eta zabalkunde eta publizitate handiena emango zaio, eta atxikipeneko sistema bat edukiko du, bai eta jarraipeneko eta ebaluazioko sistema bat ere».

Funtsean, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen arau horiek ez dute Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako EJKn finkatutakoa aldatzen. Ostera, hor jasotako ia balio eta printzipio guztiak errepikatu eta berresten dituzte, zenbait kasutan kargu publikoek beren aplikazio alorrean bete edo saihestu beharreko jokaerei buruzko zehaztapenak eta xehetasunezko erregulazioak gehituta, bertan finkatutakoa osatu eta aberastuz.

Aipatu legeak II. kapituluan ezarritako jarduketako eta jokabideko printzipioak betetzen direla kontrolatzeko finkatzen dituen antolaketa eta funtzio izaerako arauak ere ez dira EPBak jarduteko dituen oinarrien aurkakoak. Transkribatutako artikulua «atxikipeneko sistema» eta «jarraipeneko eta ebaluazioko sistema» hornituko zaizkion kodea onartzeko beharra planteatzen du; bi baldintza horiek betetzen dira EPBk jarduten duen erakundearen osotasun-sisteman.

Hori dela eta, arau hori indarrean jarri zenetik, ezin saihestuzko erreferentzia da EPBrentzat; eta horren akordioak dagoeneko hasi dira II. kapituluan jasotako artikuluei aipamen esplizituak egiten, EJKren edukiak indartuz.

Horrekin guztiarekin eta EPB horren jarduera alorra argi eta garbi mugatze aldera, ez litzateke soberan egongo EJK aldatzea, horren testuari aipatu Legearen II. kapituluan bildutako balio, printzipio eta jokabide guztiak Kodeak bere egiten dituela zehazten duen faktura berriaren klausula gehitzeko xedearekin.

B. EJK, IZAERA JURIDIKOA EZ DUTEN JOKABIDEAK AGINTZEN DITUEN DOKUMENTU GISA

Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako kodeak hainbat balio, printzipio eta jokabide biltzen ditu eta, horrez gain, uste oso pertsonalaren alorrean kokatutako *ad intra* irizpide etikoak finkatu nahi du eta, ez hori bakarrik, kargu publikoen eta antzekoen jokabidea beren funtzioen eginkizunean *ad extra* ere bideratu nahi du, hau da, kanpo-proiektzioan.

Kodeak herritarrek duten erakundeekiko konfiantza berreskuratzea bilatzen duenez, ez luke zentzurik izango ideien eta iritzien alorrera mugatzeak, gizarateak arduradun publikoei aplikatutako test etikoak ez baitie jokabidea bideratzen duten barneko uste osoei erreparatzen, jokabideen zentzu eta eduki materialari baizik. Ondo da arduradun publikoek sinesmen moral sendoak babestu eta jarraitzea, baina herritarrek agintari publikoei eskatzen dietena jarrera zuzenak eta etikoki aitzakiagabeak dira batez ere.

Etika publikoaren alorrean azaleratzen den kritika nagusietako batek balio moral jakin batzuen profesio teorikoaren eta horiek garatzen dituzten kargu publikoen benetako jokabidearen artean maiz gertatzen den bereizketara (batzuetan erradikala) seinalatzen du, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzaren ekimenak antagonismo hori gainditzea du xede, eduki guztiz programatikoa duen Kode Etikoa aldarrikatzearen ideari ihes eginez, horren balioek eta printzipioek jarraibide zehatzak ez ekartzeko moduan, kargu publikoek jarraitu edo eragotzi beharreko jokabideen definizio zehatzarekin modu eraginkorrean bidera dezaten horien jokabidea, jardunbide guztien berri emanaz. Hortik dator Euskadiko gobernua onartutako dokumentuaren izena: *Etika eta Jokabide Kodea*.

Era berean, kode horretan jokabide-arauak errepikatzea saihestu da, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan egoteagatik kargu publiko orok bere funtzioen jardunean bete beharreko eskubide eta, batez ere, bete-beharren funtsa osatzen dutelako. Testuinguru konstituzionala, Autonomia Estatutua eta gainerako ordenamendu juridikoa –printzipio demokratikoak, oinarrizko eskubideak eta askatasun, berdintasun eta aniztasun politikoko balioak– errespetatzeko beharra kargu publikoek beren jarduera garatu ahal izateko premisa nagusia da eta ez haien irudi publikoari eutsi eta haien sinesgarritasuna bermatzeko eska dakiekeen *plus* etikoa. Hortaz, ez da

Kode Etikoan errepikatu beharreko zerbait, Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratikoaren testuinguruan jarduna garatzen duen kargu publikodun ororen posizio politiko instituzionalaren parte baita. Gogoan izan behar da kargu publikodunak botere publikoei gorpuztasun materiala ematen dieten organo administratiboen jabe direla.

Gainontzean, maila etikoaren eta juridiko politikoaren arteko loturari dagokionez, EPB honek izan du aukerarik dagoeneko memoriari dagokion aldian iritzia emateko. 8/2014 Akordioan argudiatutako moduan, EPBri egotzitako eginkizuna ez da jarduera administratiboaren legezketasunari edo goi kargudunen jardunaren zuzentasun juridikoari buruzko iritzia ematea. Hauxe da aginduta duen eginkizuna: EJKrekiko borondatezko atxikimendua formalizatu duten kargu publikoek eta antzekoek hori betetzeari buruzko irizpena ematea. Eginkizun hori bi modutara bete daiteke, batetik, goi kargudunek beren eginkizunetan aurre egin beharreko dilema etikoaren aurrean *motu proprio* planteatutako kontsulten bitartez eta, bestetik, kargu publikodunen jardueren aurka, Kodean aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabideen aurkakoak izateagatik, hirugarrenengoek aurkez ditzaketen salaketen bidez.

Horrek ez du esan nahi, halere, legea betetzeak zerikusirik ez duenik kargu publikoaren jokabide etikoarekin eta, ondorioz, faktore hutsala denik EPBk aginduta duen eginkizuna betetzeko. Aitzitik, legea betetzea kargu publikodun orok bete beharreko oinarritzko arau etikoa da; bestalde, arau etiko hori ez zaio arrotz egiten EJKri. Nahikoa da enuntziatuak arreta apur batekin errepasatzea, debekatzen diren jarrera eta jokabide asko ordenamendu juridikoak izaera orokorrenekin ezarritako jokabide estandarrei erreferentzia eginez definitzen direla jabetzeko. Hau da, era autonomoan zehaztu beharrean, legean ezarritakora igortzen du kodeak, onargarriztat edo gaitzesgarriztat jotzen dituen portaerak zehazteko.

Horixe gertatzen da, adibidez paragrafo hauetan: 5.2.2 –legez aurreikusitako [kargugabetzea dakarten kontuak emateko] kasuei buruzkoa; 5.2.3 –informazio publikoaren betebeharrari buruzkoa, «legeek salbuespenez horrela xedatzen dutenean» baino ezin dena mugatu–; 6, 2 puntua –»indarreko arau-esparruan babestuta ez dauden» norberaren edo hirugarrenen aldeko abantaileri buruzkoa–; 11.3 –»Legeak izan litezkeen interes-gatazkei

buruzko jokabideekin lotuta ezarritako betebeharrei buruzkoa»–; 11,3,7 puntua –kargu publikoa izan aurretik edo ondorengo jarduerekin lotuta «legeak arautuko dituen» interes-gatazkei buruzkoa–; 13,2 puntua –garden-tasun-printzipioa bete beharri dagokionez legeak aurreikusten dituzten murrizketei buruzkoa–; 13,4 puntua –herritarrek administrazioa jotzeari buruzkoa, legeak ezarritako mugekin eta «dagokion legedian aurreikusitako» zaindu beharreko datu pertsonalak errespetatuta–; 14,2 puntua –arduraldi oso eta eskusiboko kargu publikoen jarduerari buruzkoa, aplikatu beharreko legedian xedatutako moduan–; 14,7 puntua –legez aurreikusitako diskriminazio positiboko kasuei buruzkoa–.

Baina, gainera, Gobernu Kontseiluak EJK onartzeko hartutako erabakiak, zioen azalpen gisa ere baliagarri zaionak, agerian uzten du bere paragrafoetan ez bada jaso «legezko edo arauzko betebeharren erreferentziarik, hau da, horretarako ematen diren legeetan edo araudietan nabarmendu beharko diren antolamendu juridikoaren ondoriozko eskakizunak zorrozki bete beharriaren erreferentziarik», ez da izan kodean ezarritako estandar etikoek legeak bete beharra jasotzen ez dutelako; aitzitik, hain agerikoa denez, «ez da egokitzat jotzen» hori nabarmentzea. Testuak berak horri dagokionez aurrerago zehazten du, halaber, «jakintzat ematen dela legezko eskakizun horiek (baita Zuzenbide Penalari edo Zehatzaileari dagozkionak ere) ezinbestean daudela kargu publikoak arduradun publiko gisa eta, dagokionean, herritar gisa dituen legezko betebeharren artean».

Horiek horrela, esan liteke EJK-k zehaztutako jokabide etikoaren atala-seak segurutzat jotzen duela Eusko Jaurlaritzaren goi-mailako karguek eta antzekoek legeak betetzea. Eta oinarritzko plataforma hori ardatz hartuta, hainbat jarrera eta jokabide zehazten ditu, legez daudenak baino zorrotzagoak direnak. Era horretan, gehigarri etiko bat da hori, juridikoki eskatzerik ez dagoena, baina bai ageri dela kodearekin bat egiten duten pertsonen onartutako konpromiso politikoaren barruan; hortaz, EPB honek hori betetzen den aztertu eta ebaluatu ahal du.

Oinarritzko legezko eskakizunaren eta eskakizun etiko gehigarri edo osagarriaren arteko harreman-eredu hori grafikoki islatuta dago EJKren 13. paragrafoaren 2 puntuan; bertan, publizitate aktiboaren printzipioaz ari denean, xedatzen du hori betetzeko konpromisoa hartu duten kargu publi-

koak, legezko betebeharrak bete ez ezik, gardentasun gehigarri bat ematen ere saiatuko direla beren ekintzetan eta beren sailen edo erakundeen kudeaketa-politika edo -jardueretan.

Hala bada, EJKren jokabideak legean ezarritakoarekin lotuta zehazten direnean (eta horrela gertatzen da 4 paragrafoan bildutako kasuetan), bat datoz estandar etikoa eta juridikoa; estandar etikoa legean zehaztutakoa baino zorrotzagoa denean, lehena betetzeak ez du legea betetzetik salbuesten, baizik eta jakintzat jotzen duela; eta, azkenik, kasu zehatzen batean EJK-k eskatutako muga legearen azpitik badago, azken hori ezarri beharko litzateke, ez bailuke zentzurik jarraibide etiko batek kargu publikoei antolamendu juridikoa ez betetzen uzteak.

C. EJKREN HARTZAILEAK: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKOR ETA INSTITUZIONALEKO KARGU PUBLIKO ETA BEHIN-BEHINEKOAK

Eusko Jaurlaritzako Goi Mailako Zuzendaritza Betearazlea adierazpen orokorraren mendean, EJK-k kargu publiko eta antzekoen sorta zabala jasotzen du eta 2.1 eta 2.2 ataletan horiek zehatz-mehatz zerrendatzen ditu, kodearen «hartzaile» gisa izendatuz. Zerrendan hauek daude jasota:

- Lehendakaria.
- Eusko Jaurlaritzako sailburuak.
- Euskadiko Administrazio Orokorreko goi-kargudunak, Jaurlaritzari buruzko 1981eko ekainaren 30 eko 7/1981 Legearen 29. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera.
- Sortze- edo izendatze-arauan aurrekoekin parekatutako kargu publikodun guztiak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde publikoetako zuzendaritzetako kideak.
- Euskadiko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko aldi baterako nahiz konfiantzazko langileak, baldin eta ez badute lotura zuzenik eduki betearazle hutsa duten edo zerbitzuak zuzenean emateko diren jardueretan aritzearekin.

Ikus daitekeen moduan, EJKren aplikazio-eremuak Euskal Autonomia Erki-degoko sektore publikoa osatzen duten izendapen politikoko kargu guztiak jasotzen ditu, salbuespenik gabe. Kodea hedatzeko bokazioarekin sortu da eta horrek konfiantza politikoaren irizpideei jarraiki Eusko Jaurlaritzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalean eta horren erakunde instrumentaletan funtzio publikoak betetzeko izenda-tutako guztiei aplikagarri izatea dakar.

Herralde anglosaxoietan ez da harritzekoa Gobernua egituratzen duen maila bakoitzak bere Kode Etiko espezifikoak edukitzea. Erresuma Ba-tuan, esaterako, ministroei zuzendutako kode espezifikoak dute (*Ministerial Code, Cabinet Office, 2010eko maiatza*) eta aholkulariei zuzendutako beste bat (*Code of Conduct for Special Adviser, 2010eko ekaina*); horiek biak, era berean, funtzio publikorako bereziki egindako Kode Etikoaz bes-telakoak dira (*Civil Service Code*). Zenbait herrialdetan zuzendaritzako ki-deentzako bereziki egindako Etika eta Jokabide Kodea ere badute. Halaxe da Estatu Batuetako Administrazio Federalean, *Senior Executive Service* delakoa dute (*SES Code of Conducts and Ethics, 2012ko urtarrila*).

Gobernuko erantzukizun maila ezberdinetarako jokabide etikoaren ja-rraibide ezberdinak ezartzeari ez zaio oinarririk falta. Baremo etikoak alor funtzional eta erantzukizuneko alor bakoitzeko ezaugarri espezifikoetara egokitzeko behar logikoari erantzuten dio.

Dena den, bereizketa hori kodeak berrikusi eta eguneratuz urteen buruan esperientzia bildu ostean soilik egin daiteke zorroztasun eta zehaztasunez, erakunde maila bakoitzeko eskakizun berezietara egokitzeko bada.

Gurean esperientzia hori falta zaigunez, Etika eta Jokabide Kode bakarra onartzea erabaki dute eta berdin aplikatuko zaie hauei guztiei: gobernuko kabinete-kideak, Euskadiko Administrazio Orokorreko goi-kargudunak, Sektore publikoa osatzen duten erakundeetako zuzendaritzetako kideak eta aldi baterako, nahiz konfiantzazko langileak.

Profil funtzionalaren ikuspegitik hain heterogeneoa den kolektiboari apli-katzeko, kodeak arau orokorrak kargu publiko bakoitzak berezkoak dituen arau berezietara hurbiltzeko ahalegina egin behar du eta EJK honek gogo onez onartu du, orain arte gaindiezinak diren zailtasunik planteatu gabe.

EJK-ko 3.2. atalak zabalik uzten du «gutxieneko estandarrak diren» bertan jasotako jokabidezko jarraibideak osatu edo garatzeko aukera, «kode espezifikiko edo sektorialen» bidez, kasuan kasu, «alor eta erakunde desberdinetarako» onartu ahal izango direnak. Garapen hori gertatu arte, ordea, EJK izango da aplikagarri hartzaile gisa identifikatutako arduradun publiko guztientzat.

Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen –esan bezala, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak EJK formalki onetsi ostean onartu dena– 2. artikulua II. kapituluaren jasotako balio, printzipio eta jokabideetarako aplikazio alor subjektiboa zehaztu du, epigrafe honen hasierako atalean aipatutako kolektiboaz haratago doana. Hain zuzen ere, EJK-ko 2.1 eta 2.2 ataletan «hartzaile» gisa zerrendatutako kargu publikoez gain, aipatutako artikulua aipatu legea hemen datozen hauei ere aplikatuko zaiela xedatzen du e) atalean:

« Arartekoa eta arartekoaren ondokoa; Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak eta epaitegi horretako Idazkaritza Nagusiko titularra; Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko eta Lan Harremanen Kontseiluko Lehendakarietarako eta Idazkaritza Nagusiko titularrak; Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Zuzendaritza Nagusiko titularra, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko kideak».

EPB honen aburuz, lege-aurreikuspen honek EJKren aldaketa ekarri behar luke, 2.1 eta 2.2 ataletan zehaztutako «hartzaileen» kolektiboa transkribatutako lege zatian aipatutako kargu publikoetara zabaltzeko eta Gobernuaren erantzukizuna izango litzateke horiek izendatzea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendaria, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko titularra.

Gainerako kasuetan, ez luke zentzurik izango Gobernuaren inguruan mugitzen diren kargu publikoetarako sortu eta prestatutako EJK Eusko Legebiltzarrak zuzenean edo zeharka izendatutako kargu publikoei edo hainbat kolektibo sozialek proposatutako karguei aplikatzeak; horien izendapenean

Gobernuaren esku-hartzea izendapena formalizatzen mugatu denean, lehendakariak sinatuz eta ondoren EHAA n argitaratuz.

Azkenik, EJK ez zaie aplikatuko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren zerbitzura dauden funtzionarioei eta langile lan-kontratudunei. Langile horiek administrazio publikoaren zerbitzura garatzen duten jardunean bete beharreko jarraibide etikoak 2007ko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoaren, 52.-54. artikuluetan jasotakoak izango dira eta, kasuan kasu, euskal legediak funtzio publikoari buruz ezar ditzakeenak. Puntu horretan, aipatutako legea onartzeak ez du inolako aldaketarik ekarri.

D. EJKREN HARTZAILE DIREN KARGU PUBLIKOEN KODEAREKIKO ATXIKIPENA

EJKren indar loteslea –ez du izaera juridikorik eta, beraz, ez du izaera horretako arauak bereizgarri duten eragin hertsagarririk ere– 2. atalean «hartzaile» moduan definitutako banakako atxikipenean datza. Hori horrela, atxikipen-dokumentua sinatzeak kargu publikoa EJK betetzera eta hori ez betetzetik sor daitezkeen ondorioak bere gain hartzera behartzen du, baita «karguan dimisioa aurkeztera ere, neurri hori aurrez ikusten duen kasuan eroriz gero».

Kodea onartzerakoan izendatutako kargu publikoen Kodearekiko atxikipena banan-banan egin zen, 18.1 atalean aurrez ikusitako prozedurari jarraiki, «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zenetik gehienez ere 15 eguneko epean».

Hemen errepikatutako Atxiki izanaren aitortzea sinatuz egindako aipatutako atxikipenak 2013ko ekainean egin ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko kargu publiko eta behin-behineko langile guztien artean.

**ETIKAREN ETA JOKABIDEAREN KODEARI ATXIKI IZANAREN
AITORPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKOR ETA INSITUZIONALEKO KARGU
PUBLIKO ETA ALDI BATERAKO LANGILEENTZAT**

Beherago sinatzen duenak, 2013ko maiatzaren 28ko Gobernu Kontseiluan onartutako Etika eta Jokabide Kodearen edukari jarraiki, hau aitortzen du:

1. Dokumentu honen hasieran aipatutako Kodearen eta hori onartzen duen Gobernu Kontseiluaren Akordioaren ale bana duela.
2. Behin Kodea irakurrita, horren edukietara atxikitzen dela baldintza guztietan, bertan jasotako printzipio eta betebeharrak betetzeko konpromisoa hartuta.
3. Kodearen hedapena eta aplikazioa errazteko konpromisoa onartzen duela, baita horri atxikitzeak dakartzan betebeharrak ere.

Horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, agiri hau sinatu dut _____ (tokia eta eguna).

Sin.:

2014ko abendura arteko Atxiki izanaren aitortpena 340 lagunek sinatu dute eta antolaketa publikoan ordenatu eta sailkatu dira, taula honi jarraiki¹:

KODEAREKIKO KARGU PUBLIKOEN ATXIKIPENA (2014/12/31)	
Lehendakaria	1
Sailburua	8
Sailburuordea (Administrazio orokorra)	30
Zuzendaria (Administrazio orokorra)	99
Sailburuordearen maila (Organismo autonomoak)	4
Zuzendarien maila (Organismo autonomoak)	12
Personal eventual (asesor/a)	37
Gerentea, zuzendaria (sektore publikoa: ZPEP eta SP)	136
Beste langile batzuk	13
GUZTIRA	340

EJK-ko 18.2 atalaren hedapenari eta edukiari buruz sortutako zalantzen aurrean, kodea onartu ostean izendatutako kargu publikoen atxikipena gertatzeko denborazko baldintzak eta baldintza materialak Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren Aginduan xedatu dira; bertan finkatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodearekiko banakako atxikimendu-prozedura.

Eusko Legebiltzarrak onartutako lege-izaerako arau juridikoa den arren, lege horrek banakako atxikipenaren mekanismoa bermatzen du, goi-kargudunek eta antzekoek printzipioak eta balioak errespetatzeko eta EJK-k agindutako

¹ Taulan jasotako datuak Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazka arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2. artikuluan horri buruz xedatutakoarekin (aplikazio alorrarekin) bat datoz. Taulak, hortaz, ez ditu jasotzen egun aipatutako arauak eragiten ez dituen pertsonen atxikipenak, atxikipena aurrez bete bazuten ere.

eta gaitzetsitako jokabideak betetzeko duten betebeharraren iturri eta kausa modura. 11. artikuluan argia eta erabakigarria da horri buruz hau xedatzen duenean: 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan araututako jarduketako eta jokabideko printzipioen garapen gisa landutako etika eta gobernu onaren kodeari atxikipen-sistema hornituko zaio.

Horren ondorioz, EPB honek ez du arrazoirik ikusten gai horretan EJK-k aurrez ikusitako osotasun instituzionaleko sistema aldatzeko. Izaera etikoko (eta ez juridikoko) arauz osatutako jokabide-kodeari jarraiki arautuko da eta horren indar loteslea ez da legeen indar hertsagarritik etorriko, kargu publiko bakoitzak banakako atxikipenaren bidez bere gain hartutako konpromiso pertsonaletik baizik.

E. EPBAREN OSAKETA ETA ERAKETA

EJK-k eta horren 16. atalean aurrez ikusitako EPB-k osotasuneko testuinguru instituzionala osatzen dute eta nazioarteko hainbat erakundek eta gehien baimenduriko doktrinak proposatutako jarraibideei jarraiki, atal hauek ditu:

- Etika eta Jokabide Kodea, errespetatu beharreko printzipioak eta balioak, eta kargu publikoek eta antzekoek bete edo saihestu beharreko jokabideak argi eta garbi definitzen dituena.
- Kodearen hartzaile direnek bertan jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak barneratzeko mekanismoa; prestakuntza, hedapen, informazio eta sustapeneko ekintzen bidez egituratuta dagoena.
- Etika eta Jokabide Kodearen jarraipen eta gainbegiraketarako sistema eraginkor eta objektiboa, kargu publikoek aurre egin beharreko dilema etikoak konpontzeko irizpideak emango dituena, sor daitzekeen salaketak erantzungo dituena eta, kasuan kasu, estandar etikoen definizioa eta ebaluazio-sistema hobetzen lagunduko duten gomendioak eta proposamenak egingo dituena.

EJKren izaera, hedapen eta edukiari buruz *in extenso* hitz egin da dagoeneko aurreko epigrafeetan.

Hartzaileek kodean jasotako balio, printzipio eta jokabideak barneratzeko mekanismoari dagokionez, Kodeko 17. atalak hedapena hauen bidez egingo dela ezartzen du: idatzizko argitalpenak, erabilera-eskuliburuak, azalpen bideoak edo liburuxkak eta Eusko Jaurlaritzako webgunea edo egoitza elektronikoa. Horri guztiari informazio-kanpaina espezifikokoak eta prestakuntza-programak egiteko aukera gehitu behar zaizkio.

EJK onartu ondorengo asteetan, Eusko Jaurlaritzak Kodearen edukiak hartzaileei ezagutarazteko bereziki prestatutako bi mintegi antolatu zituen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) bitartez.

Lehena 2013ko ekainaren 5ean izan zen Gobernuaren egoitza nagusiko ekitaldi-aretoan. Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak eta behin-behineko langileak gonbidatu zituzten bertara eta izenburu honekin garatu zen: *Kode Etikoak sektore publikoan: Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodea. Eredu berria*. Bigarrena, Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakunde publiko, enpresa-erakunde eta sortze-erakundeetako zuzendaritzetako langileei bideratutakoa, izenburu berarekin garatu zen urte bereko ekainaren 19an. Bietan ere, Rafael Jiménez Asensio irakasleak eman zuen mintegia.

2013ko urriaren 23an, hirugarren mintegia antolatu zen Bilboko *Euskalduna* jauregian, IVAPek antolatuta hori ere, izenburu honekin: *Politikaren berrikuntza etikoa. Kode, praktika eta esperientzia berriak*. Irakasle hauek eman zuten mintegia: Rafael Jiménez Asensio, Daniel Innerarity, Cristina de la Cruz, Antonio Casado de la Rocha, Txetxu Ausín, Isabel Wences, Fernando Vallespín eta Pedro Ibarra.

2014ko urriaren 22an, sei hilabetean behingo mintegi-zikloari hasiera eman zion IVAPek, *Eredugarritasun publikoari* buruzko jardunaldiarekin, Javier Gomá Lanzón irakaslearen eskutik.

Atal honetan, ordea, EJKn aurrez ikusitako jarraipen- eta gainbegiratze-sistemari erreparatuko diogu batez ere, kodearen aginduak betetzen direla kontrolatzeko xedearekin.

Espainiako estatuko administrazio publikoek onartutako kode etiko gehienek Gobernu zentralak 2005eko martxoaren 3ko Akordioan ezarritako eredu jarraitu dute. Akordio horretan Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen Gobernu Onaren Kodea onartu zen eta horren «Kodea betetzeari» buruzko laugarren atalak hau finkatu zuen:

« 1. Urtero, Ministroen Kontseiluak Administrazio Publikoetako ministroaren txostenaren berri edukiko du. Txostena printzipio etikoen eta jokabidezkoen balizko urradurei buruzkoa izango da, eta lortu nahi den helburua horiek urratzea ahalbidetu dezaketen prozedura eta jarduerak aztertzea da, Administrazioaren eta erakunde publikoen erabakien objektibotasuna bermatzeko egokitzen jotzen diren neurriak proposatzearekin batera.

2. Ministroen Kontseiluak egoki jotzen dituen neurriak hartuko ditu, kodearen printzipioak urratuko balira»

Administrazio Publikoetako ministroak Ministroen Kontseiluari aurkeztu beharreko etika eta jokabidezko printzipioen balizko urraketei buruzko urteko txostenaren inguruan egituraturako jarraipen eta gainbegiraketako mekanismo ahul horrek, zeina oinarri hartuta «neurri egokiak» hartu behar baitzituen, tipifikatzen ez zirenak, ezta zehaztu ere, osotasunaren sistema instituzionala devaluatu zuen, oinarritzat zuen Kode Etikoa doktrinak «estetikotzat» eta «kosmetikotzat» jotzeraino. Jarraipen- eta ebaluazio-mekanismo horiek, duela ia hamar urte onartu zirenetik, eman dutena herritarrei gutxieneko xehetasunarekin ezagutzeko aukera emango liekeen informazio publiko eta irisgarriaren gabeziak eszeptizismoa zabaldu du eta kargu publikoen jardunbidea aldarrikatzen den estandar etikora egokitzea modu eraginkorrean bermatzen lagundu ez dutelako sentsazioa hedatu da.

Espainiar estatuko administrazio publikoek onartutako kode etiko gehienek –hainbat aldagairekin, horiek ere instituzio barruko organo batek egindako aldizkako txostenaren alegiazkotasunean oinarritzen dira eta organo horrek ez du proposamenik egiten balizko urraketen aurrean, ezta ondorioak jakinarazi ere– eredu hori onartzeak herritarren sistemarekiko

mesfidantza eragin du; izan ere, sistema horrek adierazpen atalean aldarrikatutako balio eta printzipio etikoak betetzen direla bermatu beharrean, gauzatze praktikoaren ardurari uko egiten dio, gizartean eszeptizismoa eta frustrazioa zabalduz.

EJK-k proposatutako aukerak ospea galdu duen eredu nagusiarri aurre egitea du xede, horretarako objektiboagoa, zorrotzagoa eta gardenagoa izango den jarraipen- eta ebaluazio-sistema ezarrita. Xede horretarako, Etika Publikoko Batzordea sortzea aurrez ikusi du, Eusko Jaurlaritzako bi goi-kargudunek eta sektore publiko, nahiz pribatuko erakundeen etika, zuzenbide eta gobernantzarekin zerikusia duten gaietan egiaztatutako esperientzia, gaitasuna eta prestigio profesionala duten bi lagunek osatuta, parekotasun-erregimenean –Batzordeko idazkaritzak hitzarekin eta botorik gabe jardungo du–. Batzorde horri funtzio hauek egotziko zaizkio, besteak beste: EJKren aplikazioarekin lotuta [...] kargu publikoek egindako kontsultei erantzutea eta EJKn jasotako balio, printzipio eta jokabideen balizko urraketei buruzko kexak edo salaketak jasotzea eta dagokien izapidea ematea; Akordio horiek sistematikoki argitaratuko dira Eusko Jaurlaritzaren web orrialdean.

Deskribatutako formula ideia honetan oinarrituta dago: EJKren eraginkortasunak eta sinesgarritasunak inaktuaren jarraipen- edo analisi-sistema zorrotz eta landua behar dute ezinbestean, kargu publikoen jardunbidearen kalitate etikoa zehaztasunez ezagutu ahal izateko, gerta daitezkeen desbideratzeak zuzentzeko xedearekin eta, kasuan kasu, erakundeen irudi ona berrezartzeko beharrezkoak izan daitezkeen higiene-neurriak hartzeko. Kalitate instituzionala ez da finkoa eta aldaezina den zerbait. Guztiz alde-rantziz, etengabeko hobekuntza-prozesua da, unean uneko estandarrak gainditzeko joera duena.

Osaketa (EJK, 16.2 atala)

EJK Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailari formalki adskribatuta dago, eta bost kide ditu:

- **Presidente:** Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (Herri Administrazio eta Justiziako sailburua).
- **Batzordekidea:** Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea).
- **Batzordekidea:** Elisa Pérez Vera.
- **Batzordekidea:** Daniel Innerarity Grau.
- **Idazkaria:** Maite Iruretagoiena Iburguren (IVAPeko zuzendaria). Hitz egiteko eskubidea bai, baina bozkatzeko ez.

Ez dirudi beharrezkoa denik zehaztea funtzio publikoan eskuduntza duen sailari atxikitzeak ez diola organoari erabateko autonomia funtzionalarekin jardutea eragotzen, inolako agindu edo arauen mende jarri gabe.

Funtzioak (EJK, 16.3 atala)

Hauek dira Etika Publikoko Batzordearen eginkizunak:

- Oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzea. Halaber, Kode hone-tan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasotzea.
- Etika eta Jokabide Kodea benetan abian jartzea sustatzea, horretarako beharko diren ekintzen eta neurrien bidez.
- Etika eta Jokabide Kodean beharrezkoak diren aldaketak proposatzea, Gobernu Kontseiluak kontuan har ditzan hari aurkeztuz.
- Etika eta Jokabide Kodea aplikatzearen inguruan kargu publikodunen eta parekoen kontsultei zein beste edozein instantziak egin-dako kontsultei irtenbidea ematea.
- Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea.
- Kargu publikodunei eta parekoei, bai eta sailei eta erakundeei ere, Etika eta Jokabide Kodea betetzeari buruzko gomendioak egitea.
- Etika eta Jokabide Kodea zenbateraino betetzen den aztertzen duen

urteko txostena prestatzea (16.5 atala).

- Etika publikoaren alorrean erakundeen hobekuntza helburu duten hedapen- eta prestakuntza-programak zein berariazko tailerrak sustatzea, dagozkien instantzietan.
- Aztergai diren gaiei buruzko aldatetako edo gomendioak proposa ditzaketen gai espezifikoaren azterketarako lantaldeak sortzea.

Jarduera (16.4 atala)

Etika Publikoko Batzordea urtean bitan bildu behar da, presidentearen aginduz idazkariak alde aurretik deialdia eginda.

Aurrekoa betetzeari utzi gabe, landu beharreko gainen izaera eta larrituen arabera beharrezko jotzen dituen ezohiko bilera guztiak egin ahal izango ditu eta bilera horiek presentzialak edo baliabide telematikoen bitartezkoak izango dira.

2

Memoriak jorratutako aldi- aztertutako gaiak

Aztertutako gaien laburbildutako analisiaren aurretik, gogoan izan behar da EJK hainbat balio, printzipio eta jokaera edo jokabideren arabera egituratuta dagoela.

Eusko Jaurlaritzako Goi Mailako Zuzendaritza Betezarazleko kargu publiko-dunen jarduna balio hauek gidatzen dute:

- Osotasuna
- Bikaintasuna
- Politika eta kudeaketa bat etorraztea
- Lidergoa
- Berrikuntza

Balio horiek modulatu egin ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako Goi Mailako Zuzendaritza Betezarazlea eta erakunde instrumentalak osatzen dituzten hainbat mailako kargu publikoen artean. Modulazioak, kasu horretan, ez du beherapena esan nahi, antolaketako maila bakoitzaren profiletara egokitzea baizik. Lidergoa, esate baterako, ezin zaio intentsitate berarekin eskatu sail bateko edo zuzendaritza bateko titularrari. Hori bera esan daiteke politika eta kudeaketa bat etorrazteari buruz, baita berrikuntzari buruz ere. Osotasuna, nolana ere, intentsitate handienaz hedatu behar da, Goi Mailako Zuzendaritza Betezarazleko maila guztietara.

Hauek dira EJK kodearen printzipioak:

- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna
- Kudeaketari lotutako erantzukizuna
- Gardentasuna eta gobernatze irekia
- Onestasuna eta ezaxola subjektiboa
- Errespetua
- Eredugarritasuna

Zerrendatutako printzipio horien harira, kontuan izan beharrekoa da EJK izaera betearazlea duten kargu publikoak betetzen dituztenentzat sortua izan dela. Horrek zera esan nahi du, izaera orokorrekoekin batera –mota guztietako arduradun publikoentzat baliagarritasun unibertseala dutenak– aldarrikatzekoak direla erakunde publikoen eta horien baliabideen zuzendaritza eta kudeaketa eraginkor eta arduratsuen alorrean hedatzen direnak ere.

Aurreko lerroetan adierazitako balio eta printzipioetatik eratorren dira EJKren arabera kargu publikoek bete edo saihestu beharreko jokabideak eta portaerak:

- Kargu publikodunaren osotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak.
- Bikaintasunari lotutako jokabideak eta portaerak.
- Politika eta kudeaketa bat etorrarazteari lotutako jokabideak eta portaerak.
- Lidergoari lotutako jokabideak eta portaerak.
- Berrikuntzari lotutako jokabideak eta portaerak.
- Onestasanari, desinteres objektiboari eta jarduera pribatuak edo publikoak dituzten kargu publikodunek kargua bete bitartean izan ditzaketen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak.
- Erakundeekiko eta pertsonetikiko errespetuari dagozkion jokabideak eta portaerak.
- Gardentasunari eta gobernatze irekiari buruzko jokabideak eta portaerak.
- Kudeaketaren erantzukizunari buruzko jokabideak eta portaerak.
- Eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak.

Atal edo epigrafe horietako bakoitzean jasota dago kargu publikoek EJKren atxikipenaren bidez bete edo eragozteko konpromisoa hartutako jokabide edo portaeren sorta.

A. KONTSULTA, SALAKETA ETA AKORDIOEN ESTADISTIKA

Memoriak erreferentziazat hartzen duen aldian EPBk hartutako akordioak 24 izan dira, urtean segida honen arabera banatuta:

- 2013. urtean 14
- 2014. urtean 10

Horien artean lehena, 1/2013 Akordioan adierazitakoa, 2013ko urrian ebatzi zen. Azken Akordioa, 10/2014 moduan identifikatutakoa, 2014ko azarokoa da. Abenduaren 23an beste salaketa bat erregistratu zen eta Memoria hau ixterakoan oraindik ere izapide-prozesuan zegoen.

EPBk onartutako akordio guztiak Eusko Jaurlaritzaren webgunean, www.euskadi.eus (Herri Administrazio eta Justizia Saila, Etika Publikoko Batzordea), argitaratu dira, aldeztu aurretik eragindako kargu publikoek buruzko datuak kenduta. Ildo horretatik, EJK-ko 16.6 atalak honako hauek behartzen ditu EPBko kideak: funtzioen betekizunean ezagutzeko aukera izan duten informazio guztia sekretuan gordetzera, bereziki, aztertutako gertakariei, ikerketetako edukari eta hartutako erabakiei buruzkoa, baita izaera pertsonaleko datuei buruzkoa ere eta aurrez adierazitakoarekin lotutako adierazpen publiko, nahiz pribatuak egitea debekatuko zaie, baita azken erabakiak pertsona interesdunari edo interesdunei jakinarazi aurretik ezagutaraztea ere.

Ikusitako moduan, izaera pertsonaleko datuei buruzko sekretua zehatz-mehatz gordetzera behartzen duen EJKren aginduz haratago, EPBren ustetan, gai horretan diskrezioa gordetzeak proposatutako helburuak modu eraginkorrean betetzen laguntzen du eta, era berean, kargu publikoak bultzatzen ditu dilema etikoak Batzordeari aurkezteko, hark hedatzeko beldurrik gabe.

Hona hemen EPBk hartutako akordioen zerrenda, gaien arabera sailkatuta.

2013

- [1/2013 Akordioa](#)
- [2/2013 Akordioa](#)
- [3/2013 Akordioa](#)
- [4/2013 Akordioa](#)
- [5/2013 Akordioa](#)
- [6/2013 Akordioa](#)
- [7/2013 Akordioa](#)
- [8/2013 Akordioa](#)
- [9/2013 Akordioa](#)
- [10/2013 Akordioa](#)
- [11/2013 Akordioa](#)
- [12/2013 Akordioa](#)
- [13/2013 Akordioa](#)
- [14/2013 Akordioa](#)


2014

- [1/2014 Akordioa](#)
- [2/2014 Akordioa](#)
- [3/2014 Akordioa](#)
- [4/2014 Akordioa](#)
- [5/2014 Akordioa](#)
- [6/2014 Akordioa](#)
- [7/2014 Akordioa](#)
- [8/2014 Akordioa](#)
- [9/2014 Akordioa](#)
- [10/2014 Akordioa](#)

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN (EPB) ESTADISTIKA 24 GAIAK

2013: 14 GAIAK

2014: 10 GAIAK



GAI MOTAK**I. JARDUEREN BATERAGARRITASUN/BATERAEZINTASUNARI BURUZKO GAIAK (2)**

- 2013 **GAIA: 13/2013** ● BATERAEZINA. EJK-REN IZAN LITEKEEN URRAKETA.
- 2014 **GAIA: 7/2014** ● PERTZEPZIOAREKIN BATERAGARRIA.

II. JARDUERA AKADEMIKOEN BATERAGARRITASUN/BATERAEZINTASUNARI BURUZKO GAIAK (4)

- 2013 **GAIA: 1/2013** ● BATERAGARRIA.
- GAIA: 3/2013** ● BATERAGARRIA.
- GAIA: 11/2013** ● BATERAGARRIA.
- 2014 **GAIA: 6/2014** ● BATERAGARRIA.

III. HARPIDETZAREN ADIERAZPENARI BURUZKO GAIAK (1)

- 2013 **GAIA: 2/2013** ● EJK-REN URRAKETARIK EZ.

IV. HAUTAKETA/KONTRATAZIO PROZESUARI BURUZKO GAIAK (3)

- 2013 **GAIA: 4/2013** ● SALAKETA PARTIKULARRA. EZ DAGOKIO. FUNTZIONAMENDUA HOBETZEKO GOMENDIOAREKIN BATERAGARRIA.
- 2014 **GAIA: 5/2014** ● ENPLEGATU PUBLIKOAREN SALAKETA. ONARTU GABEKO GAIA. DATUAK FALTA DIRELAKO, SALATZAILEAK EMAN EZ DITUELAKO. ALOR SUBJEKTIBOAK ETA OBJEKTIBOAK EPB-REN EGINKIZUNAREKIN BAT EZ EGITEAGATIK.
- GAIA: 10/2014** ● ZENTRAL SINDIKALAREN SALAKETA. ONARTU GABEKO GAIA. ALOR SUBJEKTIBOAK ETA OBJEKTIBOAK EPB-REN EGINKIZUNAREKIN BAT EZ EGITEAGATIK.

V. OPARIA ITZULTZEARI BURUZKO GAIA (1)

- 2013 **GAIA: 5/2013** ● EZ DAGO GATAZKARIK. GOMENDIOAK.

VI. JARDUERAKO INTERES GATAZKARI BURUZKO GAIA (7)

- 2013 **GAIA: 6/2013** ● GATAZKA EGOTEA. EJK-REN URRAKETA DAGO. ONDORIOA: KARGU-UZTEA.
- GAIA: 9/2013** ● EZ DAGO GATAZKARIK.
- GAIA: 10/2013** ● EZ DAGO GATAZKARIK.
- GAIA: 12/2013** ● GATAZKA DAGO. ABSTENITZEKO BETEBEHARRA. EZ DAGO EJK-REN URRAKETARIK.
- GAIA: 14/2013** ● GATAZKA DAGO. ABSTENITZEKO BETEBEHARRA. EZ DAGO EJK-REN URRAKETARIK.
- 2014 **GAIA: 2/2014** ● EZ DAGO GATAZKARIK.
- GAIA: 4/2014** ● GATAZKA EGON DAITEKE. ABSTENITZEKO BETEBEHAR HIPOTETIKOA, EJK-REN URRAKETARIK EZ BADAGO. EZ DA URRAKETARIK EGON.

VII. KARRERAKO FUNTZIONARIO-PLAZAREN INTERES-GATAZKARI BURUZKO GAIA (3)

- 2013 **GAIA: 7/2013** ● EZ DAGO GATAZKARIK.
- GAIA: 8/2013** ● GATAZKA DAGO: ABSTENITZEKO BETEBEHARRA. EJK EZ DA URRATU.
- 2014 **GAIA: 3/2014** ● SALAKETA ANONIMOA. EZ DAGO GATAZKARIK.

VIII. PARTAIDETZAKO BERTARATZEEN KOBRANTZARI BURUZKO GAIAK (1)

- 2014 **GAIA: 1/2014** ● EJK EZ DA URRATU. INDEMNIZAZIOARI UKO EGITEA GOMENDATZEN DA, BESTELA EJK-REN URRAKETA GERTA DAITEKE.

IX. PUBLIZITATEARI ETA BABESLETZARI BURUZKO GAIA (2)

- 2014 **GAIA: 8/2014** ● EJK EZ DA URRATU. EPB-K PUBLIZITATE INSITUZIONALARI BURUZKO SAILARTEKO BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUAN HAINBAT GABEZIA IKUSI DITUEN ARREN, HAINBAT GOMENDIO PLANTEATU DITU.
- GAIA: 9/2014** ● EJK EZ DA URRATU.

B. PLANTEATUTAKO GAIAK ETA ADOSTUTAKO AKORDIOEN ILDO OROKORRAK²

I Jarduerak garatzeko bateragarritasunari/bateraezintasunari buruz (2)

13/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, EPBri kontsulta egin dio Eusko Jaurlaritzaren historiari buruzko hainbat dokumentaletan «istorioak kontatzeko arduradun» gisa parte hartzeari buruz. EPBk dioenaren arabera, (...) jaunak EJKren 14. atalak adierazitakoa ez luke beteko, dokumental-serie batean parte hartuko balu, Eusko Jaurlaritzaren eta (...)-(r)en laguntza ekonomikoarekin, (...)n emititzeko. Izan ere, EJKren 11.4 atalean jasotako salbuespenaren arabera, ordainsariak jasotzeko aukera duten jarduera bateragarriak dira soil-soilik izaera akademikoa dutenak edo prestakuntzaren eta ikerkuntzaren alorrekoak. Beraz, gainerako jarduerak ezin diote aukera horri heldu. Partaidetza horrek antza handiagoa izan lezake EJKren 15. atalean adierazitako jokabideekin, kargu publikoen eta antzekoen ereduagarritasunarekin eta bestelako kanpo-adierazpenekin lotuta.



BATERAEZINA. EJK-REN IZAN LITEKEEN URRAKETA.

7/2014

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, kontsulta egin dio EPBri honakoa adieraziz: «(...) izendatu aurretik eta (...) futboleko arbitro titulazioarekin jarduera pribatuak garatu ditut Athletic Clubarekin eta haren fundazioarekin, bai eta Espainiako Errege Federazioarekin eta haren fundazioarekin ere. Futboleko jokatzeko arauak buruzko hitzaldiak edo konferentziak eskaini dizkiet eta hauek izan dira hartzaileak: Athletic Clubeko

² Horiek guztiak kontsultatu nahi dituen orok eskuragarri ditu webgunean:

www.euskadi.eus Herri Administrazio eta Justizia Saila eta Etika Publikorako Batzordea.

teknikariak, taldeetako ordezkariak, hainbat kategoriatako jokalariak, baita hitzartutako klubetakoak ere, eta Kirol Zuzendarien Goi Mailako Ikastaroko ikasleak». EPBren arabera, (...) jaunak ez du EJK urratzen futboleko jokatzeko arauetara eta arbitroen praktikari eta interpretazioari buruzko prestakuntza-saioak emateagatik eta, kasuan kasu, gai horri buruzko DVDak eta bestelako ikasmaterialak prestatzeagatik ordainsaria onartuz gero, egun Eusko Jaurlaritzan (...) gisa duen kargu publikoarekin inolako zerikusirik ez duten jarduera osagarriak direlako.



BATERAGARRIA.

II

Jarduera akademikoak garatzeko bateragarritasunari/ bateraezintasunari buruzko gaiak (4)

1/2013

Hona hemen (...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, Batzorde honi eskatutakoa: «aitortzea (...) ikastaroak –aurrez aurrekoak zein online direla–, hitzaldiak, seminarioak ematearekin edota zuzentzearekin lotutako jarduerak (11.4 atala), bai eta doktrina-artikuluak eta liburuak idaztearekin lotutakoak ere (15. atala), baldin eta aipatutako gaietara buruzkoak badira –kontratazio publiko elektronikoa, sinadura elektronikoa eta administrazio elektronikoa, alegia–, (...) izendatu aurretik zuen lanbide-prestakuntza dela medio gauzatzen dituela eta, horrenbestez, jarduera horien truke –dagokionean– jaso ditzakeen ordainak ez direla bere eginkizun publikoen jardunarekiko bateraezintzat jotzen aipatutako Etika eta Jokabide Kodearen arabera». EPBren arabera, (...) jaunak ez du EJK urratzen kontratazio publiko elektronikoa duen aditu-izaerari lotutako jarduera akademikoaren truke diruzko edo gauzako ordainak onartzen dituenean, baldin eta jarduerok ez baditu bere kargu publikoa dela medio gauzatzen; azken egoera horretan, berriz, EJKrekin bateraezina litzateke jaso lezakeen diruzko zein gauzako ordain oro, salbu eta joan-etorriak, ostalua eta jan-edanak ordaintzeko ez badira, edota emakida zein opari motaren bat, bere karguaren ondorioz eman diezazkieten ohiko edo adeitasunezko usadioen barruan.

EPBk ebatzitako lehen kasu honetan, zera dio, kargu publikodunek beren eginkizunen jardunean hartu behar dituzten erabakietan interferentzia oro saihestea dela EPBk galarazitako portaerak mugatzearen xedea, kargu publikodunen zintzotasuna eta eredugarritasuna sustatzeko, bai eta kargudunek ordezkatzan duten erakundearen inpartzialtasun- eta zuzentasun-irudia babesteko ere, horren eraginkortasuna sendotze aldera; horrekin batera, herritarrek beren erakundeetan eta, zehatzago, Eusko Jaurlaritzaren eta haren goi-karguen eguneroko lanean duten konfiantza berreskuratu nahi da. Horren ondorioz, eskatzaileak bere karguan jarduten duen bitartean, mota horretako jarduera profesionalak beharrezko zuhurtziarekin gauzatu beharko ditu maiztasunari eta intentsitateari dagokionez, karguaz kanpoko jarduerak ez diezaioten eragin dedikazio eskusiboari, eta ez ditzaten kalteu kargutik eratorritako erantzukizunak zein eginkizunak.



BATERAGARRIA.

3/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, kontsulta egin dio Batzorde honi gai honekin lotuta: «jarduera batean parte hartu du eta horregatik (...) diru-kopuru bat kobratuko duela aurrez ikusita dago». Hain zuzen ere, 2013ko irailaren 8an UPV-EHUK antolatutako «Armonización Penal en Europa» (Bateratze penala European) delako Uda Ikastaroan hartu zuen parte, «Delitos Europeos, Fiscalía Europea y medidas de cooperación penal» (Europako delituak, Europako fiskaltza eta lankidetzaren penalera neurriak) hitzaldia eman zuen. Argudiatu duenez, ikastarora gonbidatu zuten «aurrez EHUKo Zuzenbide Prozesaleko irakasle izana zelako eta ikastaroa antolatu zuen ikerketa-taldean eta ikerketa-proiektuan parte hartua zelako. Gainera, Europako Kriminologia Elkartearen Batzorde Betearazleko kide zen».

1/2013 gaian oinarrituta, EPBk erantzun du (...) jaunak ez duela EJK urratzen hitzaldia emateagatik ordainsaria onartzen badu, ez baitu duen kargu publiko den aldetik egin.



BATERAGARRIA.

11/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, kontsulta egin dio EJKri, *Deusto Bussines School*-eko Osasun Zuzendaritzaren programa aurreratuan irakasle gisa parte hartzeari buruz eta horren ondorioz ordainsaria jasotzeari buruz.

Aurreko gaiaren harira, EPBren arabera (...) jaunak ez du EJK urratzen aipatutako programan irakasle gisa parte hartzeagatik diruzko edo gauzazko ordainak onartzen baditu. Hala eta guztiz ere, Batzordeak azpimarratzen du eskatzaileak bere karguan jarduten duen bitartean, mota horretako jarduera profesionalak beharrezko zuhurtziarekin gauzatu beharko dituela maiztasunari eta intentsitateari dagokionez, karguaz kanpoko jarduerak ez diezaioten eragin dedikazio eskusiboari, eta ez ditzaten kaltetu kargutik eratorritako erantzukizunak zein eginkizunak. Horrela, inolaz ere ez diote eragingo eman behar den zerbitzu publikoaren funtzionamenduari.

BATERAGARRIA.

6/2014

3/2013 gaiaren oso antzekoa den kasuan, (...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, kontsulta egin dio EPBri eta honela dio: «(...) gisa dudan karguarekin zerikusirik ez duten bi jardueretan hartuko dut parte eta horregatik ordainsaria ematea aurrez ikusita dago». Orain duen kargu publikoa hartu aurretik UPV-EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea eta gaien aditua izateagatik deitu zuten. Aurrez aipatutako kasuan bezalaxe, EPBren arabera, (...) jaunak ez du EJK urratuko saio horiek emateagatik ordainsaria onartzen badu.

BATERAGARRIA.

III**Adierazpena sinatzeari buruzko gaiak (1)****2/2013**

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, ea «BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA» sina dezakeen galdetu du. EPBren arabera, (...) jaunak «BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA» izenpetzen badu, ez du EJKren kontra egiten; aitzitik, indartu egiten du kode horrekiko atxikimendua eta konpromisoa, gehien-gehienean bat baitatoz konpromisoak aldarrikatzen dituen balio, printzipio, jokabide eta portaerak, kodearen oinarrian daudenekin.

**BATERAGARRIA.**
-----**IV****Hautaketa/kontratazio prozesuari buruzko gaiak (3)****4/2013**

Kontsultaren oinarrian dagoen idatzia partikular baten eskutik etorri da eta bertan Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ospitale-sareak enplegatu publiko bat kontratatzeko egindako jardunbideak baliogabe aitortzeko eskatzen du, legearen aurrean berdintasun-eskubidea urratzeagatik, baita postu horretara ondoen prestatutako pertsona heltzeko baldintza urratzeagatik ere. Hortaz, EJKn jasotako etika eta jardunbideko arauak betetzeko eskatzen du.

EJKn bildutako balio, printzipio, portaera eta jokabideen balizko urraketa egon izanaren behar adina aztarnarik ez dagoela ondorioztatu du EPBk.

Hala eta guztiz ere, kontratazioan zuzenean parte hartu zuten aipatutako ospitaleko goi-kargudunen aldetik eta hierarkian haien gaineretik daudenen aldetik (haiei zuzendu zitzairen partikularra) alegazioei erantzuna eman behar zitzaizela uste du, etengabe hobetzeko ahalegin horretan, herritarren eskakizunei erantzun eta zerbitzu hobea emateko azken xedearekin, kudeaketa publikoko bikaintasunaren etengabeko bilaketan, herritarrak ordezkatzan dituzten erakundeetan haien konfiantza berreskuratzeko sekula amaitu gabeko prozesu horretan.



FUNTZIONAMENDUA HOBETZEKO GOMENDIOAREKIN BATERAGARRIA.

5/2014

Enplegatu publiko baten salaketa ez onartzea jorratzen du gaiak, salatzaileak ekarri beharreko datuak falta direlako batetik, eta horren alor subjektiboak eta objektiboak EPBren eginkizunarekin bat egiten ez duelako, bestetik. Izan ere, gertakariak hautaketa-prozesu batean jasota daude eta, bereziki, bertan jarraitutako prozeduraren legezkotasuna jarraitzearekin, EJK betetzearekin zerikusia duten etika publikoko gai jakinak aipatu gabe.



ONARTU GABEKO GAIA.

10/2014

Sindikatu baten salaketa ez onartzea jorratzen du gaiak, EPBren jardueraren eremu objektiboaren ardatza baitela soil-soilik jarduera-eremuko pertsonen jardunaren tratamendu etikoa, hau da EJKn jasotako balio, printzipio eta jokabideen jarraipena; eta EJKren balio eta printzipioen aipamen formaletik harantz, hautaketa prozedura horren izapideetako balizko lege-irregulartasunak baitira salaketaren muina, eta ez EJKri atxikitako kargu publikodunek Kodea urratu izana.



ONARTU GABEKO GAIA.

V

Oparia itzultzeari buruzko gaiak (1)

5/2013

(...) jauna, Eusko Jaurlaritzako goi-karguduna, EPBri zuzendu zaio enpresa bateko Administrazio Kontseiluko kide den aldetik gorbata bat opari gisa jasotzeari uko egitea egokia izan den ala ez kontsultatzeko.

EPBren ustetan, aipatu goi-kargudunaren jokabidea zuzentasunez egoitzen zaio Gobernuaren 7/1981 Legearen 36. artikuluan xedatutakoari, opariak onartzea zehatz-mehatz debekatzen duenari, eta ez du EJKren 11.4 atalean agindutakoa inolaz ere urratzen.



BATERAGARRIA.

VI

Jarduera jakina garatzeko interes-gatazkari buruzko gaiak (7)

6/2013

Sozietate Publiko bateko presidenteak EPBri zuzendutako idatzi bat erregistratu zuen. Idatzian, batzordeak iritzia eman zezan eskatzen zen, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudun batek EJKren balizko urratzea egin izanari buruz, idatzizko komunikabide batean argitaratutako informazio baten harira, onestasanarekin, desinteres subjektiboarekin, osotasunarekin, inpartzialtasunarekin eta objektibotasunarekin lotutako jarreraren, jokaeraren eta portaeraren aurkako kontratu-jarduera leporatzen baitzaio goi-kargudunari.

EPBren erabakiaren aurretik, mintzagai dugun goi-kargudunak alegazioak aurkeztu zituen EPBk emandako 24 orduko epearen barruan. Behin alegazioak aztertuta, EPBren arabera goi-kargudunak EJK urratu du, ez diolako berehala batzorde honi jakinarazi gatazka-interes bat egon zitekeela eta gatazka-interes horrek talka egin zezakeela bere betebeharrekin eta ar-

durekin. Bide horretatik, ahal izanez gero idatziz eman behar zuen gerta zitekeen gatazka horren berri, edo gutxienez, gaur egun edo etorkizunean balizko gatazka-interes bat egon zitekeenaren zalantza jakinarazi behar zuen nahitaez, eta gainera, uko egin behar zuen, jarduera hartan interes pertsonal zuzena edo zeharkakoa izan zezakeelako, edo interes-gatazka egon zitekeela ondoriozta daitekeelako.

Horrenbestez, EPBk, EJKren 3.2 atalean ezarritakoa betez, etika- eta jokabide-arauak hautsi direla zalantzarik gabe egiaztatu ondoren, goi-karguduna haren kargutik berehala kentzea gomendatzen dio goi-karguduna izendatzeko eskumena duen organoari.

Ez onestasan, interes partikularrik eza, osotasun, objektibotasun eta inpartzialtasun printzipioak zuzenean eta publikoki urratu direlako, egon zitekeen interes-gatazkaren inguruko zalantza eta susmo guztiak uxatzeko EJK-k berak ebatzitako kautelazko eta prebentziozko mekanismoak erabili ez zirelako baizik.

Eusko Jaurilaritzan berriak direlako eta duela gutxi ezarri direlako, agian ez direla oraindik behar bezala errotu arduradun politiko guztien laneko ohituretan aitortzen du EPBk. Badirudi kargua berehala uzteko proposatutako neurria, EPBk berak dioenaren arabera, gehiegizkoa edo neurritik kanpokoa dela interes publikoari egindako kaltearekin alderatuta. Bada, itxuraz, interesdunak EJKn ezarritako prebentziozko eta kautelazko neurriak bete gabe kontratazio-espeditentean eragindako kaltea, seguruenik, bete izan balitu sortutako berak izango lirateke. Hortaz, horren aurrean, berehala kargutik kentzea erabaki den arren, eskura zituen neurrien artean zegokion bakarra hori zelako, EPBk aukera zabalagoa eskura izatea eskertuko zukeen, bere jarrera modulatu eta erantzuna egiaztatutako urraketa-aren benetako larritasunera egokitu ahal izateko. Horrenbestez, Eusko Jaurilaritzari EJKn aurreikusitako aukeren tarte zabalatzeko aukera aztertze eskatzen dio, EJKren aginduen urratzeak –ez baitute denek larritasun bera, jakina– EPBk proposatutako erreakzioaren modulazioa behar badu, neurriari dagokionez.



GATAZKA EGOTEA. EJK-REN URRAKETA DAGO. ONDORIOA: KARGU-UZTEA.

9/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako Agentzietako batetako goi-kargudunak, behin goi-kargudun gisa egozten zaizkion eginkizunen artean Agentziako Zuzendaritza Nagusiak itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren zortasun-zonan sinatu beharreko obra-baimenen proposamenak egitea dagoela adierazita, duela 20 urte inguru lan egin zueneko enpresak planteatutako obra-eskakizuna izapidetze-prozesuan dagoela gehitu du. Horregatik, EPB honen iritzia jakin nahi du, hark aipatu espedientean parte hartzearen zilegitasun etikoari buruz.

EPBren iritiz, aipatutako goi-kargudunak ez du EJK urratuko, dagokion karguari jarraiki baimen-espedientean bideratzea dagokion irizpide teknikoetan oinarritutako proposamena egiten duen heinean, betiere, nahiz eta baimena «duela 20 urte inguru» lan egin zueneko enpresak hasitakoa izan, «ez baitu inolako interes pertsonalik».



BATERAGARRIA.

10/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako Agentzia batetako arduradun exekutibo nagusiak, kontsulta bat egin dio EPBri, argitu nahian ea etikoki zilegi den berak parte hartzea (...)ko udalak sustatuta jabari publiko hidraulikoan egin nahi diren udal-plangintzako lanei buruzko txostenak egitean, kontuan izanda zinegotzi dela udal horretan.

Hasteko, EPBren arabera, (...) jaunak ez du EJK urratzen aldi berean Agentzian arduradun exekutibo nagusiaren kargua eta zinegotziaren kargua, (...)ko Udalean, arduraldi ez osoarekin, ez partzialarekin, betetzeagatik.

Horrenbestez, goi-kargudun horrek ez du EJK urratzen EPBren arabera, udalak sustatutako txostenak berak pertsonalki egitean eta izenpetzean, nahiz eta Udal horretako zinegotzi izan, baldin eta garbi badago egin eta izenpetutako txostenetan ez dagoela hark parte ez hartzeko arrazoirik, ez HAAJAPEn 28. artikuluan jasotakorik, ez TAOALen 76. artikuluan zehaz-

tutakorik. Hala eta guztiz ere, EPBren arabera, horrek ez du esan nahi (...) jaunak kontuan hartu behar ez duenik zenbait egoeratan parte hartzeari uko egitea; batik bat, berak parte hartzeak arrazoizko zalantza edo susmoa sorbadezake bere mesederako ariko ote den, «edozein motatako interes partikularrek eragindakoa» ote den edo «pertsoneko edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde faboritismo-nahiak eraginda» jokatu ote duen. Ildo horretatik, goi-kargudun horri gomendio hau egiten zaio: udalak bultzatutako espedienteren bat izapidetzerakoan, bertako zinegotzi-kargua izanik, Agentiako arduradun exekutibo nagusi gisa esku hartu behar duenean, arreta berezia jar dezala EJK-ko 6. ataleko 4. puntuan jasotako agindua bete dadin. Honela dio puntu horretan: goi-kargudun eta antzeko guztien erabaki, ebazpen eta egintza guztiak informazio frogagarrian (txostenak, azterketak, proiektuak edo irizpenak) oinarrituko dira eta, era berean, ebatzi beharreko gaiarekin lotuta eskuragarri dituzten datuen analisi objektiboan oinarritzen ahaleginduko dira. Horretarako, aholkularitza teknikoa baliatuko da, bitarteko propioen eta, hala egokituz gero, kanpokoen bidez, arazoak modu objektiboan hartzen eta behar bezala konpontzen laguntzeko».



BATERAGARRIA.

12/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako Sozietate publiko bateko goi-kargudunak, kontsulta-eskaeran adierazten duenez, Eusko Jaurlaritzan sartu arte enpresa pribatuen kudeaketa eta zuzendaritzaren alorrean aritzen zen eta horrek ingurumeneko industriren klusterreko zuzendaritza-batzordean sartzera eraman zuen, klusterraren xedea enpresen lehiakortasuna eta berrikuntzaren hobekuntza garatzea izanik, garapen iraunkorraren eta erantzukizunaren garapenarekiko konpromisoarekin. Interesdunak erantsi du Eusko Jaurlaritzan sartu bezain laster utzi zituela zuzendaritzaren alorreko ardura horiek guztiak, bai enpresa pribatuan, bai klusterrean.

Hala eta guztiz, EPBaren irizpidea jakin nahi du, sozietate publikoak (goi-kargua izanik bertan) aipatutako klusterrarekin lan batzuk egitea adostekoa duela-eta balizko «egoera irregularren bat» sortzeari dagokionez, in-

teresatua aipatu hitzarmenen sinatzailea ez izan arren.

Goi-kargudunak ez du EJKren aurkako jokabiderik EPBren arabera, Sozietate publikoak eta klusterrak –interesduna Administrazio Kontseiluko kide izan zelarik Eusko Jaurlaritzako goi-kargudun izendatu arte– lankidetzahitzarmenak sinatzeagatik, baldin eta ez badu pertsonalki eragiketan esku hartzen, eta sozietate publikoaren ordezkaria, aipatu hitzarmenak sinatzeko ondorioetarako, beste norbait izanez gero.

Dagokigun gaian gertatuko balitz Sozietate Publikoko Administrazio Kontseiluak esku hartu beharra, aipatu hitzarmenak egikaritzeari lotutako gorabeherak bideratzeko, goi-kargudun kontsultatzaileak uko egin beharko lioke esku hartzeari.

 **GATAZKA DAGO: ABSTENITZEKO BETEBEHARRA. EZ DAGO EJK-REN URRAKETARIK.**

14/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, EPBri eskatu dio adieraz dezala zer iritzi duen Eusko Jaurlaritzaren Plan Orokorra lantzeko hurrengo lizitazio publikoan jarraitu behar duen prozeduraren gainean, kontuan hartuta hori bere eskumenekoa dela, eta interesdunak berak enpresetan lan egin zuela Eusko Jaurlaritzan sartu arte –bere garaian enpresa horiek hautatu ziren plan orokorra lantzeko, eta oraingoan ere berriz hautatuak izan daitezke horretarako sustatuko den lehiaketa-prozeduran–

EPBk zera gomendatzen dio goi-kargudunari, hau da, interesdunak Eusko Jaurlaritzan sartu aurretik enpresa jakin batean lan egin bazuen eta enpresa horrek lizitazio publikoan parte hartu behar badu; eta prozedura hori kargu publikodunek izan ditzaketen interes-gatazkek desagerrarazteko arrazoizko epetzat ezarritako bi urteko denbora-tartea igaro baino lehen gauzatuko bada–, ez dezala zuzenean eta pertsonalki parte hartu aipatutako Plan Orokorra lizitatzeko prozesuan.

 **GATAZKA DAGO: ABSTENITZEKO BETEBEHARRA. EZ DAGO EJK-REN URRAKETARIK.**

2/2014

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailletako eta Institutu bateko goi-kargudunek EPBren aurrean planteatutako kontsultan adierazi dute parte hartu behar dutela, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturata dauden alderdi politikokoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen duen 164/2008 Dekretuan xedatutakoa aplikatze aldera –aldatutako 200/2012 Dekretua–, eta goi-kargudun diren aldetik, balorazio-batzordean. Izan ere, 165/2008 Dekretuaren babesean, hau du xede balorazio-batzorde horrek: 2013. urteko diru-laguntzen deialdian aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea.

Kontsulta horretan zehazten denez, dekretu horrek «xedatutakoaren araber, diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da, zenbait irizpide kontuan hartuta, eta lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 60 bitartekoa kalkulatzeko, matematika-formulak aplikatuta ebatzi behar dira». Eta kontsulta sinatu duten hiru goi-kargudunek aurre egin behar dioten dilema etikoak zerikusia du honekin: «Eskaera egin duen fundazioetako bat gu militante (*rectius*, afiliatuak) garen alderdi politikoaren mendekoa da».


EPBren araber goi-kargudun horiek ez dute EJK urratzen, espedienteen ez baitute «inolako interes pertsonalik» eta haien parte-hartzea teknikoa baita eta esleipen-prozedura matematikoki tasatutako prozedura, zuhurtasun maila hutsala duena. Guztiz aurkakoa gertatzen da; hau da, balorazio-batzordean parte ez hartzeak, hain zuzen, dagozkien egitekoak ez betetzea eragingo luke, legearen araber uka egin ezinezko eskumena denean; eta horrez gain, zenbait balio urratzea eragin dezake, dagokien funtzio publikoan zuzentasunez eta bikaintasunez ez jarduteagatik, bereziki goi-kargudunaren kasuan, balorazio-batzordearen buru baita.

**BATERAGARRIA.**

4/2014

(...) andreak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, EPBri kontsulta egiteko idatzian dio betetzen duen kargua dela eta, Sozietate Publiko bateko kontseilari gisa ere jardutea dagokiola eta horrek kontratu bidezko harremana duela merkataritza-sozietate batekin eta bere ezkontideak % 20,919ko zeharkako partaidetza duela bertan, biak ezkontuta egonik «ondasunen banaketako eraentzan». (...) andreak EPBri horren berri eman dio EJKren arabera aipatutako Sozietate Publikoan kontseilari gisa duen partaidetza «zuzentzat» har daitekeen jakiteko. EPB honi bideratutako kontsultan aipatutako organoaren barruan nola jokatu beharko lukeen ere galdetu du, Sozietate Publikoaren eta merkataritza-sozietatearen arteko kontratu-harremanen baten berri emango balitz, (...) jaunarekin ezkontuta egoteak interes-gatazka sortu ahal izango bailuke.

EPBren arabera, aipatutako goi-kargudunak ez du EJK urratzen espedienteko datuei jarraiki, baina etorkizunean Sozietate Publikoak aipatutako kontratuen exekuzioarekin zerikusia duten gaien ebazpenean esku hartu beharko balu edo senarrak partaidetza duen merkataritza-sozietatean eragin dezakeen erabakiren bat hartu beharko balu, (...) andreak abstenitu egin beharko luke edo, zalantza izanez gero, dagokion kontsulta egin behar lioke EPBri.

 **GATAZKA EGON DAITEKE. ABSTENITZEKO BALIZKO BETEBEHARRA.**
EZ DA URRAKETARIK EGON.

VII

Karrerako funtzionario-plazaren interes-gatazkari buruzko gaiak (3)

7/2013

(...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, irizpena eskatu du karrerako funtzionarioa den aldetik duen postua, Gasteiztik Bilbora, aldatuko denetako bat izatearen inguruko interesaren adierazpenak EJKn bildutako printzipioak, balioak eta jokabideak nolabait urratzen dituen jakiteko.

Integritate-, inpartzialtasun- eta objektibitate-printzipioak eta haiei dagozkien balio eta jokabideak urratu diren ala ez aztertuta, EPBk erabaki du ez dela halakorik gertatu eta ez dagoela halakorik gertatzeko arriskurik. Izan ere, (...) jaunak partikular gisa parte hartu du espedientean, karrerako funtzionario gisa dagozkion eskubideen jabe, eta espediente horren emaitza lehendik ezarrita zeuden arau juridiko orokorrak zorrotz aplikatzearen ondorioz etorriko da.

Onestasan eta desinteres subjektiboaren printzipioen eta horiei dagozkien balio eta jokabideen balizko urraketaren harira, EPBk zera adostu du, kontuan hartuta (...) jaunak ez duela inola ere esku hartu kontsultaren xede den lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen hasieran, ezin dela planteatu ere egin egun betetzen duen behin-behineko postua baliatu duenik espedientearen sorreran edo sustapenean esku hartzeko. Are gehiago, aintzat hartu behar da, bestalde, egun duen behin-behineko lanpostuan ez duela betetzen funtzio publikoaren arloko inolako eginkizunik. Ondorioz, ez dira kontrajarriak karrerako funtzionario gisa dituen eskubideak baliatzea eta egungo destinoan zerbitzatu behar dituen interes orokorren alde egitea.

Eredugarritasun-printzipioaren eta dagozkion balio eta jokabideen balizko urraketari dagokionez, Batzorde honek erabaki du ezin dela aztertu kargu publikodun gisa eredugarritasunez jardun duen al ez, (...) jaunak ez baitu jardun kargu publikodun edo parekatu gisa, pertsona partikular gisa baizik; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa. Hori horrela, (...) jaunak ez dio inola ere kalterik egin Administrazioaren osperei, duintasanari edo erakunde-irudiari; aitzitik, berak soilik adierazi du interesa duela lanpostuaren destino-aldaketa aplikatu dadin karrerako funtzionario gisa jabetzan duen dotazioan.

Azken batean, EPBren arabera (...) jaunak legezko eskubidea du karrerako funtzionario den aldetik dituen eskubideak betetzeko. Eskubidea du, bereziki, Gasteiztik aldatuko diren lanpostuetako bat berea izan dadila eskatzeko, aztergai dugun kontsultan aipatutako lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen barruan. Betiere, eskubide horretaz funtzionario gisa baliatzen den heinean, eta ez kargu publikodun gisa.

**BATERAGARRIA.**

8/2013

(...) jaunak planteatutako kontsulta ebaztea adostu du EPBk, Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako Zerbitzu Juridiko Zentralei eragiten dion lanpostu-zerrendaren aldatetari buruzkoa. Aldaketa hori Abokatu / Zerbitzu Juridiko Zentraleko lanpostuko (511421 kodea) zortzi dotaziori esleitutako destino-aldaketari dagokio (Gasteiztik Bilbora) eta, lehenik eta behin, aintzat hartu da (...) jaunak ez lukeela EPBn parte hartu behar haren aurrean aurkeztu duen kontsultaren azterketari eta tratamenduari dagokionez, xede horretarako Batzordearen Presidentetza (...) andreari egokituko zaiolarik, EJKn xedatutakoari jarraiki, eta hark aurkeztuko diolarik EPBri akordio-proposamena.

Bigarren, (...) jaunak ez ditu beteko, oro har, EPB honen aurrean aurkeztutako lanpostu-zerrendaren aldatetari buruzko espediente lantzean dagozkion funtzioak (...) (r)en alorrean eskumena duen Saileko arduradun nagusi gisa; hau da: espediente aztertzea, izapidetzea eta proposatzea Gobernu Kontseiluari eta bertan bozkatzea. Lanpostu-zerrenda aldatzeko prozeduran funtzio publikoan eskumena duen goi-kargudun izateagatik dagozkion funtzioak indarrean dagoen lege-araudiari jarraiki dagokion pertsonak bete beharko ditu.

Hirugarren, (...) jaunak ez du parte hartuko EPB honetan, kontsultan berak aipatutako lanpostu-zerrendaren aldatetarekin lotura duten gaietan. Gai horien azterketa eta tratamendurako Etika Publikorako Batzordearen presidentetza EJK-k berak zehaztutako pertsonak beteko du.

Nolanahi ere, EPBren arabera (...) jaunak legezko eskubidea du karrerako funtzionario den aldetik dituen eskubideak betetzeko. Eskubidea du, bereziki, Gasteiztik aldatuko diren lanpostuetako bat berea izan dadila eskatzeko, aztergai dugun kontsultan aipatutako lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen barruan. Betiere, eskubide horretaz funtzionario gisa baliatzen den heinean, eta ez kargu publikodun gisa. Espedientea sustatu ez izana, eta lekuz alda daitezkeen lanpostuak zehazteko orduan parte hartu ez izana, aurrez ezarritako arau orokorrak bete behar baitira horretarako. Azkenik, kontsultatzaileak eskubide hori betetzeak ez du eraginik izango, inola ere ez, kargu publikodun den aldetik dituen funtzioekin ez eta hari agindutako interes orokorrekin ere. Gogoan izan behar dugu, baita ere, interesdunak ezin duela parte hartu bera titular duen lanpostuko administrazio-unitatearen gain eragina izango duen lanpostu-zerrenda aldatzeko administrazio-prozeduran.



GATAZKA DAGO: ABSTENITZEKO BETEBEHARRA.

EJK EZ DA URRATU.

.....

3/2014

Idatzi anonimo baten bitartez, Eusko Jaurlaritzako Sail batek dagokion Sailburuordetzari atxikitako abokatuen kolektiboari buruzko LPZ aldatzeko garatutako jarduerak biltzen dituen txostena aurkeztu zaio EPBri, jarduera horiek EJK kontuan hartuz azter daitezzen eta horretarako aribidean dagoen espedientea berehala etetea adosteko eskatu zaie eskumena duten organoei, gaiari buruz duten iritzia eman artean.

Dagokion Sailburuordetzako Zerbitzu Juridiko Zentralei eragiten dien lanpostuen zerrenda aldatzeari buruz EPBri aurkeztutako salaketa anonimoa hark aztertzea onartu ostean, zein baldintzetan formulatu den, harekin doan dokumentazioa eta gaitzat duen xedea kontuan hartuta, ez da goela EJKren aurkako portaera eta jokabiderik irizten dio, espedienteak ez duela ondorio jakinik eragin jakinda.

Ezin izan da Akordio honen jakinarazpenik egin, salaketa anonimoa zelako, baina EPB honek adostutako aurreko akordioen antzera hemen argitaratu da: www.euskadi.eus (Herri Administrazio eta Justizia Saila, Etika Publikorako Batzordea).

 BATERAGARRIA.

VIII

Ebaluaketa Batzordean parte hartzeagatik bertaratzeak kobratzeari buruzko gaiak (1)

1/2014

(...) andreak, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, EPBri kontsulta egin dio bera buru den Zuzendaritzako lanpostu baten aldi baterako hornikuntzarako eraturako Ebaluaketa Batzordean parte hartzeagatik kobratutako bertaratzeen jatorriari buruz.

EPBren arabera, (...) andrearen izendapena dagokion lanpostuaren aldi baterako hornikuntzarako eraturako Ebaluaketa Batzordeko presidentea izateko, kargu publiko gisa duen izaerari jarriki egin da –aipatutako beste kasuetan beste edozein zuzendari mota horretako batzordeetarako presidente izendatzen den moduan–; izan ere, deitutako lanpostua jasotzen duen Zuzendaritzako ordezkari izendatzera eramango lukeen beste baldintzarik ez dago. Hori horrela, eginkizuna edo jarduera kargu publikoaren berezko jardunari dagokionean, ez du inolako ordainsaririk jasoko, ez dirutan, ez gauzako ordainetan, kargu publikoa betetzeagatik eskuratze eta kontzeptu bakar moduan esleitutako ordainsariaz gain.

Horren harira, dagokion Ebaluaketa Batzordean presidente gisa parte hartzeagatik dagokion indemnizazioari edo «laguntzari» uko egitea gomendatzen zaio (...) andreaki.

 EJK EZ DA URRATU.
INDEMNIZAZIOARI UKO EGITEA GOMENDATZEN DA.

IX Publizitateari eta babesletzari buruzko gaiak (2)

8/2014

(...) jauna, Eusko Jaurlaritzako goi-karguduna, EPBrek in harremanetan jarri da Eusko Jaurlaritzaren aldetik publizitatea kontratatzeko zenbait alderdi eta proposamenen etika publikoko irizpideekiko egokitzapenari buruz duen iritzia eta, kasuan kasu, gomendioa ezagutzeko; izan ere, zenbait legebiltzar-taldek zalantzan jarri du Eusko Jaurlaritzak historian zehar babestutako eta komunikabideen bidez garatutako ekimen mota batzuen etika. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzako Publizitateari buruzko Sailarteko batzordekideek zera topatu dute, legegileak ez zituela aintzat hartu publizitaterako edo babesletzarako dauden eta komunikazio arduradunek erakunde publikoetan erabiltzen ditugun formula guztiak. Hori horrela, batzorde horretako kideok orain artean legeak ezarritako baldintzetan soilik aurkeztu, aztertu eta onartu ditugu publizitate-kanpaina instituzionalak, baina ez dizkiogu organo horri aurkeztu ez hitzarmenak, ez iragarki ofizialak, ez eskelak, ez babesletzak. Tresna horiek ez dituzte zehaztu, orain arte eta 2010eko abenduaren 13an Publizitateari eta Komunikazio Institutuzionalari buruzko Euskadiko 6/2010 Legea (EPKIL) onartu zen urtetik, publizitatearen urteko memorian, eta aurreikusitako ere ez dira egin legebiltzarrerara urtero igorritako publizitate-planean, ezta babesak planteatu ere Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordean. Kontsiderazio horiek oinarri hartuta, mintzagai dugun goi-kargudunak hainbat hobekuntza planteatu ditu publizitate instituzionalaren kudeaketarako.

Hasteko, EPBren iritzian, (...) jaunak bere idatzian EPKILaren esparruari buruz adierazitako gogoetak argi asko defendatu daitezke, bai ikuspuntu juridiko hertsitik, bai legea indarrean jarri eta gerorako jardunbide administratiboaren ikuspuntutik. Ondorioz, publizitate eta komunikazio instituzionalari dagokionez, ez dago arrazoirik kargu publikodunek legea betetzeko oinarritzko arau etikoa nahita eta jakinaren gainean urratu denik esateko.

Era berean, EPB honek positibotzat hartzen du Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeak lege-esparruaren barruan argitasun- eta gardentasun-bal-

dintzak hobetzeko ahalegina egin izatea urteko planak, nahiz horiek alde batera utzirik bultzatutako publizitate- eta komunikazio-kanpainak ezagutu eta, kasuan kasu, onartzean. Funtzionamendua erregularra eta ordenatua izateak Eusko Jaurlaritzaren publizitate-ekintza instituzionalarekin loturiko erabaki publikoak erraztuko lituzke, arrazoi teknikoetan, iritzi egiaztatuetan eta irizpide profesional sendoetan oinarrituta leudeke eta.

Illo horretatik, eraginkortasuna sendotzeko eta gardentasuna handitzeko, komenigarria izango litzateke Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeak bere jarduera modu argi, zorrotz eta ulergarriagoan antolatzea, besteak beste: arauak xedatzen duen moduan, «gutxienez hilean behin» biltzea, «ezohiko bilera egitea erabakitzeko» aukera edukita; ekitaldi bakoitzaren lehen hilabeteetan publizitatearen eta komunikazioaren urteko plana egiten eta onartzen saiatzea, helburu planifikatzailea bete ahal izan dezan; Eusko Jaurlaritzaren sailek eta EPKILen 2.1 artikuluan adierazitako erakundeek sustatutako kanpaina guztiak onartzea –eta, beharrezkoa izanez gero, horien gaineko irizpena ematea–, salbuespenik gabe; aktetan bilkuren edukia guztiz eta zehatz-mehatz adieraztea, eta, batez ere, bere eskumeneko arloetan hartutako erabakiak argi eta garbi jasotzea, kasu bakoitzean izandako gehiengoak adieraztea eta, horrelakorik badago, emandako boto partikularrak –237/2011 Dekretuak, azaroaren 22koak, haren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzekoak hori gauzatzeko behar beste aurreikuspen jasotzen ditu–, eta, azkenik, ekitaldi bakoitzeko memoria egiteko orduan Jaurlaritzak gauzatutako publizitate-ekintza guztiaren kalitatea, koherentzia eta eraginkortasuna ebaluatzea urtero. 2013ko Memorian egindako argitzeko, gardentasuneko eta bereizteko ahaleginari ere eutsi beharko lioke.

Era berean, EPBk positiboki hartu du EAEko administrazio orokorraren publizitate-jardura instituzionala osatzen duten noizean behingo babesletza guztiak Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeak kontrolatzeko proposamena, baita kontratu guztietan, babesletzakoetan zein lankidetzakoetan, publizitate-izaera eta erakunde sustatzailea espresuki eta nahitaez aipatzekoa ere. Eusko Jaurlaritzaren publizitate- eta komunikazio-politikaren diseinu, inplementazio eta ebaluazioan Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeak duen garrantzia sendotuko luke horrek, eta horri zorrotzasun tekniko eta profesionaltasun handiagoa emango liokete. Hortaz, EPBri ere

positiboa iruditzen zaio «2013ko urteko publizitateari buruzko memorian publizitate-kanpaina instituzional guztiak, baita iragarki ofizialak, hitzarmenak eta babesak ere, jasotzeko eta legebiltzarrera igortzeko» erabakia.

Azkenik, ez dagokio EPBri arau-politikari buruzko prestakuntza, orientazioa edo aholkuak ematea euskal erakundeei, baina, hala eta guztiz ere, bere iritzian, horri buruz (...) jaunak egindako galderari erantzunez, *ad hoc* arau autonomikorik ez dagoenez, Eusko Jaurlaritzaren publizitate instituzionala hedabideen artean banatzeko irizpideak ordenatzeaz eta objektibo izateaz ongi asko arduratu ahalko litzateke Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea –hain zuen, «publizitatearen eta komunikazioaren plangintza, laguntza teknikoa, ebaluazioa, koordinazioa eta kontrola» gauzatzeaz arduratzeko legezko organoa da-. Hala, EPKIL bete behar duten sailei eta erakundeei gogora ekarri beharko lieke lehen aipatutako funtsezko eskubideek honakoa agintzen dutela: «Publizitatea modu ekitatiboan banatu behar da, gardentasun- eta berdintasun-printzipioei jarraiki, jokabide baztertzailak ekidinez eta komunikabideen askatasuna eta independentzia eraginkortasunez bermatuz. Horretarako, objektibotasunaren, publikotasunaren eta lehia librearen printzipioak finkatu beharko dira».



EJK EZ DA URRATU.

EPB-K PUBLIZITATE INSITUZIONALARI BURUZKO SAILARTEKO BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUAN HAINBAT GABEZIA IKUSI DITUEN ARREN, HAINBAT GOMENDIO PLANTEATU DITU.

9/2014

EPBko Idazkaritzak Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Harremanetarako sailburuordeak sinatutako eta bidalitako ofizio baten harrera erregistratu zuen. Ofizioak atxikita zuen Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren Lehen Idazkariak emandako ziurtagiria, Eusko Legebiltzarren Diputazio Iraunkorrek «publizitate instituzionala kontratatzean egindako lege-urraketei eta iruzurrezko publizitate instituzionalari» buruzko 137/2014 Ez Legezko Proposamenaren (ELPre) harira uztailearen 7an hartutako erabakia jakinarazten zuena. Hortaz, «Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio etorkizunean behar bezala identifikatu gabeko eta erakunde sustatzailea edo kontratatzailea espresuki aipatzen ez duten kanpaina instituzionalak ez garatu, sustatu edo hedatzeko. Eusko Legebiltzarrak Etika eta Jokabide Kodearen 11.6 atala, kargu publikodunen jokabide zuzenari buruzkoa, urratu dela salatu du eta Etika Publikorako Batzordeari galdatu dio azter dezala informazio itxurako propaganda jendarteratzeko diru publikoa komunikazio-talde batera bideratzea justifikatzen ahalegindu diren arduradun politiko guztien jokabidea, publizitate eta komunikazio instituzionala zabaltzeko legezko eta ohiko ekinbidea balitz bezala jokatu baitute».

Erabakia eragin duen salaketak «arduradun politiko» batzuek EPKILen aplikazio-esparru materialaren gaineko ikuspegia defendatu izanari egiten dio aipamena. Batetik, ez du deus ikustekorik EJK-ko 11. puntuan aipatutako kontrabaliorekin, eta, bestetik, EPBk espresuki «defendagarri» iritzi dio defentsa horri ikuspuntu juridikotik 8/2014 Erabakian, aurrez aipatutakoan hain justu, eta EPBk ez du hauteman zuzentasun-printzipioaren urraketarik kargu publikodunen jardunean, arerio politikoari irainik egin gabe, eztabaida publikoan parte hartzera mugatu baitira, beren ikuspuntua defendatuz eta diskurtsoa eratzeko eta sinesgarri izateko libreki hautatutako argudioak eta baliabide dialektikoak erabilia.

EJK EZ DA URRATU.
.....

3

Ondorioak eta gomendioak

Jakina dirudi (eta hala aitortzen dute nazioartean ospea duten ekonomilari eta politologoek) erakundeek eginkizun oso garrantzitsua dutela herrialdeen hazkunde iraunkorrean.

Kalitate instituzionala eta, beraz, politikaren kalitatea, oinarritzko premisa da herrialde batek hazkunde ekonomikoarekin bat egin eta, horrela, herri-tarrei etorkizun hobea bermatzeko. Ez da kasualitate hutsa krisi ekonomikoaren ondorioek gutxien eragin dituzten ekonomiak Europan kaudimena-ren eta kalitate instituzionalaren ikuspegitik sendoenak diren herrialdeekin bat etortzea. Ez eta azken horiek izatea hain zuzen ere kargu publikoei jokabidezko estandarrik altuenak jartzen dizkietenak eta ustelkeria gutxien azaltzen dutenak ere.

EPBk funtzionamenduan eman duen urte eta erdiaz oso balorazio positibo-a egin du; ibilbide horretan gure erabakiekin lagundu dugu.

Beste herrialde batzuetan antzeko prozedurak dauden arren eta Eusko Jaurlaritzak aurrekaria duen arren, esperientziak bazuen ezezaguna den horretara egindako bidaiaren nolabaiteko kutsua, garapen eta amaiera ezezaguneko abenturarena.

Hasteko, azpimarra dezagun Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek ondo ulertu dutela beren egitekoa eta egindako kontsultekin EJK baliabide oso

baliagarri bilakatu dutela gobernuaren ekintzako etika publikoa hobetzeko.

Haien kontsultei esker, doktrina-gorputza lantzen joan gara eta bizitza politikoko kasuistika guztia bilduko ez badu ere, haien jarduera bideratzeko aukera ematen du jokabide publikoaren alorrean,aldi berean zorrotzak eta bidezkoak diren irizpideei jarraiki.

Eskakizun etiko horien onespren soziala ere aipatzekoa da, krisi eta gaitzuste politikoko garai hauetan bereziki errotuta dagoen gizartearen sentimenduari dagozkion eskakizunak dira.

Alde horretatik, komunikabideek egindako lana oso positiboa izan da; gure lanaz arduratu dira, horren zerizana jabetu dira eta euskal gizarteaz baltzen lagundu dute, hura baitzen horren guztiaren azken hartzailea.

Ikuspegi horretatik, EPB abian jartzera eraman gintuen lehen helburua bete dugula pentsatzen dugu, EPB betetzen dela kontrolatzea.

Funtzionamenduaren ikuspegitik, EPBk gogotik egin du lan guztira 24 erabaki hartzeko, batzordearen jarduera arautzen zuen ebazpenean aurrez ikusitako bileren dinamikari esker. Lan atsegina izan da, hausnartze eta eztabaidaz josia, kideen artean adostasunera heltzeko zailtasun berezirik gabea.

Hori horrela, gauzak beste modu batera egin zitezkeen arren, harro esan dezakegu erabaki guztiak aho batez hartu ditugula.

Jabetuta geunden eta oraindik ere jabetzen gara nolabaiteko esperimendu-izaera duen zerbait dela, denboraren joanean eboluzionatuko duen bide irekia, baldintza berrien erdian dagoena, eta ikaskuntza-prozesu kolektibo honetatik ondorioztatutakoa txertatzen joango dena.

Amaitzeko, EJK onartzea eta EPBk horren jarraipena egitea gure sistema demokratikoak jasaten ari diren arazo konplexuei konponbidea emateko bidea ez dela argi dagoen arren, ziur esan dezakegu gobernuan eginkizunak dituztenen eskakizun etikoa areagotu ezean, ezinezkoa izango dela herritarrak politikarako berreskuratzea.

Ilido horretatik, eskakizun eta osotasunezko ereduekin garatutako jokabide etikoa da erantzukizun publikoen jardunean duintasunez jarraitzeko eta euskal herritarren erakundeekiko konfiantza sendotzeko bide bakarra eta, zehazkiago esateko, Eusko Jaurlaritzaren eguneroko jardunean, EJKren azken helburua eta helburu nagusia dena.

Azken batean, beste modu batera gobernatzea herritarrekiko konpromiso sendoa indartzeko eta politikaren zentzu morala berreskuratzeko. Etika eta Jokabide Kodearen onespenearekin eta Etika Publikorako Batzordea abian jartzearekin urrats handia eman dugu. Nazioarteko Gardentasun sailkapenetan gure lidergoa finkatuta ere urratsa eman dugu. Horrela, 2012an bezalaxe, Euskadik sailkapen horren buruan jarraitzen du, oraingoan Gaztela eta Leonekin eta Kataluniarekin parekatuta, baina 100etik 100eko emaitze-kin adierazle guztietan. Joan den urtean, Uraren Euskal Agentzia (URA) 2013ko Uraren Kudeaketaren Gardentasunezko Indizeko (INTRAG) lehen postuan kokatu zen, alde handiarekin.

Urrats garrantzitsuak izan dira, baina ez nahikoak, horregatik gomendio hauek egingo ditugu:

A. EJKREN BALIZKO URRAKETAREN AURREAN EMAN DAITEZKEEN ERANTZUNEN AUKERAK ZABALTZEKO 6/2013 AKORDIOAN EGINDAKO PROPOSAMENAREN HARIRA

Epigrafean aipatutako Akordioan, EJK urratzeagatik kargu publikodun baten kargu-uztea bultzatzeko proposamenarekin ebatzi genuen horretan, hausnarketa hau egin genuen:

« EPBk aditzera eman nahi du EJK kasu honetan zorrotz aplikatzea EJK-ko 3.2.a) atalaren aplikazio literalaren ondorioa dela, baita neurria aztertutako ekintzen edo ez-egiteen inpaktu instituzionalaren larritasunera edo ondorioetara modulatzeko ezintasunarena ere, hipotesia planteatzeko helburu hutsalarekin bederen.

Merezi duten iritzia edozein dela ere, jakina dena zera da, jokabide-arauen urraketa, esan bezala, balizko jokabidea edo zalantza EPBri jakinarazteko betebeharrak aktiboen alorrean soilik bideratu zela eta, kasuan kasu, EJK berari hertsiki hertsian lotzen zaion abstentziorako betebeharrari. Izaera materialeko balio, printzipio edo jokabideen ez betetzerik ez da izan, edo ez da halakorik egiaztatu behintzat, gai horrek objektiboki izan duen inpaktu instituzionalaren ondorioak eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza izan dezakeen eragina alde batera utzita. Ezin ukituzko horiek gordetzeak kargutik kentzeko gomendioa aurrera eramatea eskatzen du, esan bezala.

Egia da EPBk proposatutako neurria gehiegizkoa izan litekeela interes publikoari egindako kaltearekin alderatuta. Bada, itxuraz, interesdunak EJKn ezarritako prebentziosko eta kautelazko neurriak bete gabe eragindako kaltea, seguruenik, bete izan balitu sortutako kalte bera da.

Planteamendu horri jarraiki, EPBk ez du gai horrek eman-dako aukera galdu nahi eta EJK-ko 16.3 ataleko hirugarren puntuan xedatutakoari jarraiki –Etika eta Jokabide Kodean beharrezkoak diren aldaketak proposatzeko eskumena finkatzen duena eta Gobernu Kontseiluak kontuan har ditzan aurkeztu egin dituen– proposamen espezifikoak aurrera eram nahi du, hurrengo kasuetan EPBk EJK aplikatu behar duenean jarduteko esparrua izan dezan, beharrezkoa denean hartu beharreko neurriak modulatu ahal izateko, Kode hone-tako xedeentzako inolako kalterik gabe.

Gaur berriro helduko diogu proposamenari eta Eusko Jaurlaritzak EJK behar den garaian aldatu dezala eta EJK-ko 3.2 atalean aurrez ikusi-tako neurri sorta zabal dezala gomendatzen dugu, aldizka antzeman dai-tezkeen ez betetzeen ondorioak modulatu ahal izateko horien ahalik eta larritasun handien edo txikienarekin, esparru horretan ere proportzional-tasun-printzipioa betez.

B. EJKREN EDUKIAK HARTZAILEEN ARTEAN ZABALTZEAREN KOMENIGARRITASUNAREN HARIRA

Hartzaileek oraindik ere EJK ez dutela behar bezala barneratu iru-ditzen zaio EPBri. Kodearen izaera aurreratua, horrek dakarren kultura-aldaketak eta bultzatzen dituen balio, printzipio eta jokabideak maila juridikoan ez garatzeak, maila etiko edo moralean baizik, nahas-mena eragin du eta hori nabarmendu egin da izaera traumatikoko era-bakiak hartuta, aurreko epigrafean aipatutakoa kasu.

EJK da ziurrenik espainiar estatuko panorama instituzionalean mota horretako kodeen artean aurreratuena. Eskakizun maila handia dela eta, erakundeen kulturaren errotzeko oraindik ere denbora beharko du. EJKren balio, printzipio eta jokabide-arauei barneratze gabezia horrek ahalegin instituzionalik handiena egitea eskatzen du, kodearen edukia-k zabaldu eta ondorioak behar bezala argi eta garbi adierazte aldera.

Xede horretarako, EPBk EJK hartzaileen kolektiboaren artean hedatzeko ahalegina areagotzea gomendatzen du, une bakoitzean eraginkorrenak diren hedapen eta prestakuntzarako mekanismoez baliatuta. Hori horrela, positiboki baloratzen du EJKri atxikitako langileei bideratutako sei hilean behingo hitzaldiak antolatzeko ekimena. Lehenengoa 2014ko urrian antolatu zen, Javier Gomá Lanzónen eskutik.

C. 2014KO EKAINAREN 26 1/2014 LEGEAREN (KARGU PUBLIKODUNEN JOKABIDE KODEA ETA HAIEN INTERES GATAZKAK ARAUTZEN DITUENAREN) II. KAPITULUAN JASOTAKO BALIOAK, PRINTZIPIOAK ETA JOKABIDEAK EJKN JASOTZEAREN HARIRA

Memoria honetako 1.a epigrafean garatutako arrazoibideari jarraiki, EJKn beste atal bat, 3.5 atala, gehitzea gomendatzen da eta bertan argi eta garbi adieraztea Kodeak bere egiten dituela Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen II. kapituluan jasotako balio, printzipio eta jokabide guztiak.

D. EJK 2014KO EKAINAREN 26KO 1/2014 LEGEAREN, KARGU PUBLIKODUNEN JOKABIDE KODEA ETA HAIEN INTERES GATAZKAK ARAUTZEN DITUENAREN, ARAUKETARA EGOKITZEKO BEHARREZKOAK DIREN ALDAKETEN ETA TXERTAKETEN HARIRA

EPB honek beharrezkoa ikusten du EJK-ko 2.1 eta 2.2 ataletan jasotako hartzaileen zerrenda aldatzea eta horretarako aipatutako Legearen 2. artikuluko edukira egokitzea, Memoria honetako 1.c epigrafean garatutako hausnarketatik ondorioztatutako baldintzetan.

E. EJK-KO 16.4 ATALAREN ALDAKETAREN HARIRA

EPBren funtzionamendu telematikoaren eraginkortasuna egiaztatuta dagoenez, EJKren 16.4 atala aldatzea proposatzen da, EPBren bertaraturako urteko bilera kopurua bakarrera murrizteko.

**ETIKA
PUBLIKOKO
BATZORDEAK
AZTERTUTAKO
KASUAK (2013an
eta 2014an)**

Or.	Gaiaren zenbakia	ONARTU GABEKO GAI ALOR SUBJEKTIBOAK ETA OBJEKTIBOAK EPB-REN EGINKIZUNAREKIN BAT EZ EGITEAGATIK	ETIKA KODEAREN URRAKETA DAGO, ONDORIOA KARGU-JUZTEA	ABSTENTZIOA EDU UKO EGITEA GOMENDATZEN DA, BESTELA EJK-REN URRAKETA BERTA DAITEKE	ETIKA KODEAREN URRAKETARIK EZ	GAI MOTAK										
						I Jarduerak garatzeko bateragarritasuna	II Jarduera akademikoak garatzeko bateragarritasuna	III Adierazpena sinatzea	IV Hautaketa/ kontratazioa prozesuak	V Opariak onartzea	VI Jarduerak garatzeko interes- gatazka	VII Funtzionario- plazaren interes- gatazka	VIII Jardueretan parte hartzeari bertarazteak kobratzea	IX Publizitatea eta babesletza		
38	1/2013				●		●									
41	2/2013				●			●								
39	3/2013				●		●									
41	4/2013				●				●							
43	5/2013				●					●						
43	6/2013		●								●					
50	7/2013				●							●				
51	8/2013			●								●				
45	9/2013				●							●				
45	10/2013				●							●				
40	11/2013				●		●									
46	12/2013			●							●					
37	13/2013			●		●										
47	14/2013			●							●					
53	1/2014			●									●			
48	2/2014				●							●				
52	3/2014				●							●				
49	4/2014			●								●				
42	5/2014	●									●					
40	6/2014				●		●									
37	7/2014				●	●										
54	8/2014				●											●
57	9/2014				●											●
42	10/2014	●								●						